

Sara Korrika Trail
martxoaren 27an → 41

ITUREN-ZUBIETA → 20/21
Bi herrietako inauteriak
Interes Turistikoko besta

BERA → 13
Eskualdeko Txistulari
Eguna martxoaren 20an

MALERREKA → 19
Mankomunitateak egoitza
berria izanen du laster

LEITZA → 30
Atekarock jaialdia
apirilaren 2an

BAZTAN → 33
Bi atezain finko
kontratatzeko deialdia

Autoa gidatzeko manieraren arabera gehiago edo guttiago kontsumituko dugu

Erregai kontsumoa murrizteko abiadura muga jeitea erabaki du Espainiako Gobernuak. Gaia hizpide den honetan, horri buruz eta ingurumenaren alde eginez eta segurtasunez gidatzeko autoeskolek sortu duten Ekokarneta ekimenaz aritu gara Amaia Carrion Lesaka autoeskolakoarekin.

ELKARRIZKETA → 3



Lau ikasle ditu gaur egun Eratsungo eskolak, eta hurrengo urtean ere hala izanen ditu. Hezkuntza Sailak dio eskola zabalik mantentzeko gutxienez bost ikasle behar direla, eta Eratsunek hurrengo ikasturtean salbuespena egiteko eskatzen du, gero-ra ikasle kopurua igotzen joanen delako. → 25

Haur gutxi direla argudiatuz

Eratsungo eskola itxi egin nahi du Nafarroako Gobernuak

ARGAZKIA: J. MANTEROLA
ARGAZKIPRESS



2004az geroztik droga kontsumoaz Beran egin den lanaren gogoeta egiteko garaia da

Drogen Mendekotasunei aurrea hartzeko Herri Plana garatu dute azken urteotan Beran. Drogak dauden gizarte batean bizitzen ikastea izan da helburu nagusia eta horren harira, hezkuntzan, familian eta komunitatean heziketa osasungarria eta prebentzioa lantzen aritu dira Udala eta Askagintza erakundea. Egindakoaren ebaluazioa apirilaren 2an egingen dute.

ERREPORTAJEA → 4-5

ZOKKETAK → 38



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58 telefonora



ORDOKI

altzariak



web orri berria | www.mueblesordoki.com

ERAKUSKETA: Bittiria 26 | SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 | Tel. 948 63 77 80 • LESAKA

BERA LESAKA AGENDA MARTXOA 2011

12

larunbata

IRAKURKETA TXOKOA

LESAKA - Udalerriaren Erabilera arizteko aretoa - 19:00etan
Hirako Murakiminen "Los grandes ciegos"
liburua aztertu eta Menta Rivera de la
Cruzan "En tiempo de prodgios" banatuko da
Antolatzailea: Irakurketa Txokoa

19

larunbata

ESCENA DANTZA JAIALDIA

BERA - Berako Kultur etxea - 20:00etan - Sarrera: 6€
Aldanza II (Aldanza). Dantza garaikidea
Antolatzailea: Nafarroako Gobernua
Laguntzailea: Berako Kultur Batzordea

20

igandea

TXISTULARIEN EGUNA

BERA - 12:00etatik aitzinera
Auzor luze joko dute. Aitzizako plazaik kalejira Herriko Etxerara
Arratsaldean ostatur ostatur joko dute
Antolatzailea: Berako Musika Banda

25

osteguna

HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA

MARRUBI ETA TXOKOLATEZKO IPUINAK
BERA - Berako Herri Liburutegia - 18:00etan - Adina: 5-8 urte
Kontalaria: Izaskun Mujika
Antolatzailea: Berako Liburutegia eta Berako Kultur Batzordea

31

osteguna

BORTZIRIETAKO V.ELBARRITASUN JARDUNALDIAK

LESAKA - 17:00-19:00
Antolatzailea: Lesakako Dabur Zerbitzu
Gizarte partekatzen Mankomunitatea
Laguntzailea: Lesakako Udala

BERA

LESAKA

Ekitaldien gaineko informazio gehiago: 012 telefonoan
www.berakoudala.net | www.lesaka.net

BERAKO UDALA

Lesakako
Udako Kultur
Batzordea

Lesakako Udala

2010eko azarotik 2011ko apirilaren bukaera arte, Ekokarneta deritzon txartela ateratzeko aukera eskainiko du Autoeskolen Konfederazio Nazionalak gidabaimena ate-

ratzen ari direnentzako. Gidari eraginkorra eta kutsadura murrizteko helburua duen egitasmo honekin eskualdeko bi autoeskolek bat egin dute: Lesaka eta Doneztebe autoes-

kolek. Ekokarneta lortzeko zer egin behar den eta seguru gidatzeko eta kontsumoa murrizteko teknikak zein diren azaldu dizkigu Amaia Carrion Lesaka autoeskolako kideak.

Amaia CARRION | Lesaka autoeskola

«Gidatzeko ohituretan sakondu behar dira kontsumoa murrizteko neurriak»

G. PIKABEA | LESAKA

Zer da Ekokarneta?

Gidari eraginkorrago izateko edo kutsadura gutxiago sortzeko gidatzeko moduz kontzientziatzeko Autoeskolen Konfederazio Nazionalak martxan paratu duen ekimena da, autoaren azterketa teorikoarekin batera egin beharrekoa. Bi orri ematen zaizkio ikasleari: bat hamar galdera dituen test batekin eta bertzea zozketa eta promozioen zerrendarekin. Ikasleak galdetegia bete behar du eta autoeskolak zuzendu eta zigorria eman. Hamar galderak ongi erantzuten dituenari Ekokarneta izeneko txartela ematen zaio. Ekokarnetak Fiat eta Shellek emandako sarien zozketan parte hartzeko ere balio du. Sari potoloena autoa da, baina erregaien baleak ere zozketatzen dira.

Zertan sakontzen da?

Ingurumenaren alde eginez eta segurtasunez gidatzeko zer egin behar den azaltzen du. Adibidez: motorra martxan jartzeko ez da azeleratu behar. Ibili azaldu behar da eta martxan jarri eta abiatzea da onena; martxa egokiak erabili behar dira, ahalik eta luzean. Zenbat eta erreboluzio haundia egiten ibili, orduan eta gehiago kontsumitzen da eta lehenengo martxa ahalik eta



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Amaia Carrion Ekokarneta ateratzeko eskuorria eskuetan duela.

gutxien erabili behar da. Beharrezkoak ez diren martxa aldatetako saihestu behar dira; motor balazta ere erabili behar da abiadura jeisteko, hau da, maldan behera frenatzeko martxa laburrak erabili; pneumatikoen presio egokia mantendu; gidatzerakoan abiadura konstantea mantendu; ralen-tia saihestu; motorra piztuta utzi beharrean, ogia edo egunkaria erostera joaterakoan motorra itzali; aire egokitua 23-24 gradutan mantendu; leihoak itxi; beharrezkoa dena baino zama gehiago ez eraman; gomendatutako oktanajea baino

EKOKARNETA

«Ingurumenaren alde eginez eta segurtasunez gidatzeko zer egin behar den azaltzen da Ekokarnetarekin»

NEURRIAK

«120 orduko gehieneko abiadura 110era jeitsiz eta martxa luzean, kontsumoa murriztuko da. Baina 60 kilometro orduko abiaduran eta erreboluzio haundietan, gehiago kontsumituko dugu. Abiadura berdinarekin kontsumoa desberdina izan daiteke».

gutxiagoko gasolinarik ez erabili; aire iragazkia garbi mantendu eta ibilgailuaren mantentze lanak ongi egin behar dira. Gidatze teknikez gain, hainbat erregairen tratamenduak ere azaltzen dira Ekokarnetaren gidan: hidrogenoa, metanoa, bioetanola, biodiesela... Gure inguruan aukera gutxi daude, baina jendeak jakin dezan, ekologikoak eta ingurumena gutxiago hondatzen duten erregaiak dira. Teknologia berriekin ere gutxitu daitezke kontsumoa eta kutsadura. Olio motez eta iragazki berriez ere ikasten da Ekokar-

neta ateratzean, kutsadura murrizten dutelako.

Zer moduzko erantzuna izaten ari da eskualdean Ekokarneta?

Ez du erantzunik izan. Gaia datorrenean pixka bat gehiago sakontzen hasten gara, baina gidabaimen arrunta ateratzeko sartzen ez denez, jendea ez zaio interesatzen; gidabaimenari dagokiona axola zaio.

Aunitz gelditzen da segurtasun eta ingurumenaren alde jendea kontzientziatzeko?

Bai. Gure esku dauden gauzak egiteko kontzientziatua dago jendea: martxa luzeak erabiltzeko, adibidez, nahiz eta gero batzuek astakeriak egiten dituzten. Baina erregai eta sistema berriak urrutikusten ditugu, auto elektrikoa eta biodiesela esaterako.

Zer iruditzen zaizu Espainiako Gobernuak kontsumoa murrizteko abiadura muga jeistea?

Gidatzeko ohituretan sakondu beharko lirarteke neurriak. 120 kilometro orduko gehieneko abiadura 110era jeitsiz eta martxa luzean joanez, kontsumoa murriztuko da. Baina 60 kilometro orduko abiaduran eta erreboluzio haundietan, gehiago kontsumituko dugu. Abiadura berdinarekin kontsumoa desberdina izan daiteke, gidatzeko ohiturak dira.

GIZARTEA → DROGA MENDEKOTASUNA

Droga kontsumoaren inguruan azken urteotan landu denarekin gogoeta egingen da apirilean Beran

Apirilaren 2an egingen den ebaluazio jardunaldiaren barne, eztabaidak eta hitzaldiak izanen dira

Drogen Mendekotasunei aurrea hartzeko Herri Plana onartu zenetik, hezkuntzan, familian eta komunitatean osasunerako heziketa edo prebentzioa lantzen aritu dira Berako

Udala eta Askagintza erakundea, ikastaro, jardunaldi, hitzaldi, gidaliburu, informazio puntu eta kanpaina berezien bidez. Egindakoaren ebaluazioa egiteko ordua da orain.

G. PIKABEA

«Argi izan behar dugu gure gizartean drogak badirela eta beti egongo direla. Drogen kontra joateak ez du erantzun positiborik. Orain arteko errepresioak ez du lagundu, eta drogak dauden gizartean bizitzen ikasi behar dugu, beti ere, muga batzuekin». Horrela adierazi digu Askagintzako Bakartxo Iraguik. Izan ere, hori da 1983an sortu zenetik Askagintzaren (droga-mendekotasun fenomeno normalizatzen laguntzeko lanean dabilen herri erakundea) helburu nagusia, eta hori izan da, aldi berean, Komunitatean Drogen Mendekotasunei aurrea hartzeko Bera Herri Planaren xede nagusia ere bai.

Lehendabizikoz drogak kontsumitzen hasten deneko adinak beheiti egin du azken urteotan, eta gero eta nerabe gehiago dira droga kontsumitzen dutenak. Alkohola eta tabakoa dira gehien hartzen direnak, eta cannabisaren eratorriak (marihuana eta haxixa) gehien kontsumitzen di-

ren droga ilegalak. Droga bizigarrien (speed, kokaina...) kontsumoa ere igotzen ari da eta bereziki asteburuetan kontsumitzen badira ere, egunerokotasunari eusteko kontsumitzen dutenak ugaritzen ari dira. Droga kontsumo horrek izan ditzakeen arriskuez, ordea, ez dira gehiegi jabetzen.

Droga kontsumo gaiztearen artean hedatzen ari zela ikusita, Askagintza elkartera jo zuten Beran orain urte batzuk. Toki Ona Institutuko Guraso Elkarteak izan zen horren bultzatzailea eta ondorengoa, elkarlanean sartu zen Berako Udala. Hala, 2004an *Komunitatea eta Drogak* ikerketa egiteko eskatu zitzaion Askagintzari, eta honek 2005eko abenduaren aurkeztu zuen. «Bera Nafarroako bertze eremu batzuetako egoera beretsuan zegoela erakutsi zuen azterketak; ez zegoela ez hobeki, ez makurrago ere», kontatu digu Jon Abril Berako zinegotziak. Bertzelako faktoreak ere ondo-rioztatu ziren, hauxe adibidez: «krisi hau hasi ai-

tzetik, gazte-gaztetatikan mundura sartzeko aukera aunitz izan dira hemen. Horrek dirua maneijatzeko aukera gehiago dakar eta horrekin arriskua haunditu egiten da».

Ikerketa horretatik abiatuta, herritarren ekarpenak jaso ziren eta horrekin diseinatu zen Herri Plana, 2006 eta 2010 urteen artean garatu beharrekoa, baina oraindik indarrean dagoena.

HIRU ALOR

Hiru esparrutan landu dute plana: hezkuntzan, familia eremuan eta komunitatean, eta bakoitzean hainbat programa.

Hezkuntzan, erraterako, irakasle, ikasle eta familiekin aritu dira lanean. Iraguik azaldu digunez, «batetik, gaia irakasleekin landu dugu, gero irakasleek ikasleekin garatzeko. Tailerrak, lantaldeak, bideoak.. egin dira. Baina horrez gain, kanpoko profesionalak ere ekarri ditugu ikasleekin egoteko». Hezkuntzan egin den lanaren erakusle dira *Drogak Larrugorrian* eta kontsumo pro-



Bera Herri Planaren harira, era guztietara landu

blemak dituzten ikasleei laguntzeko *Babes Sarea* egitasmoak. Hasieran DBHkoekin aritu baziren ere, Lehen Hezkuntzan ere programa bat landu zuten ia: «kontsumoarekin zerikusia duten estrategiak garatu dira: ezetz esaten ikasi, sentimenduak eta emozioak adierazi...», azaldu digu Iraguik. Adinekoekin, berriz, botikak izan dituzte hizpide.

Familia eremuan, gurasoentzako saioak egin dira: «familia eremutik prebentzioa nola landu daitekeen hausnartu dugu», dio Iraguik. «Helburua familia osasuntsuak eraikitzea da, arauak eta mugak jartzen jakitea, komunikazioa bultzatzea...».

Komunitatean ere programa andana landu da: aisialdiko begiraleak formatzeko proiektua, *Gozatu, ez tronpatu* kan-



KONTSUMO ARDURATSUA

«Drogak dauden gizartean bizitzen ikasi behar dugu, beti ere, muga batzuekin»

Bakartxo IRAGUI
Askagintzako kidea



NORBERAREN ERABAKIA

«Informazioa denok jaso dugu eta bakoitzaren esku dago kontsumitu ala ez»

Jon ABRIL
Berako zinegotzi



andu da drogen gaia, baita umorearekin ere.

LARRITASUN MAILA

%42,2rentzat alkohola edatea eta %44,2rentzat tabakoa erretzea nahiko larriak dira; droga ilegalak (speeda, anfetaminak, kokaina, LSD...) kontsumitzea hagitz larria da %43,4rentzat eta cannabisa/haxixa kontsumitzea nahiko larria da %31,9rentzat eta hagitz larria %31,7rentzat.

DROGA KONTSUMOIA

Alkohola eta tabakoa dira gehien kontsumitzen direnak eta ondotik, cannabisetik eratorritako drogak.

Eusko Jaurlaritzak, 2004

paina bestetan (kartelak, pegatinak, alkoholimetro...), *Drogak eta sexualitateak* informazio puntua (Beralandetan aholkularitza eskaintzen dute, hilabeteko bigarren eta laugarren ortziraletan, 17:00etatik 20:00etara),...

Eta guztiaren bultzatzaile nagusia guraso, udal ordezkari eta Askagintzako kideek osatutako Prebentziorako Kontseilua izan da, hilabetero edo bi hilabetearen behin bildu dena. Lanketa haundia egin dute, eta egindakoaren balorazio «hagitz positiboa» egin digu Aibreleak, nahiz eta aitortu, «zaila dela zein ondorio izan duen neurtzea, drogak berdin kontsumitzen diren ala ez jakitea». Gaineratu digunez, «seme-alaben heziketan gurasoek lagungarria izan zaiela azpimarratu dute, eta ikasleek ere eskertu dute informazioa. Zinegotziok egiten dugun balorazioa ere positiboa da. Informazioa denok jaso dugu eta bakoitzaren esku dago kontsumitu ala ez».

Iraguik, bere aldetik, oraindik egitekoa bada-

goela iritzi dio: «zailtasun edo frustrazioei nola aurre egin barneratuko bagenu, askotan ez genuke drogetara joko, edo aisialdia juerga egitea, edan edo drogak hartzea, bakarrik ez dela barnerratu bagenu, drogen kontsumo askoz ere arduratsuagoa egingo genuke».

2010era artekoa zen herri plana, baina oraindik ere lanean segituko dute: «2011 trantsizio urtea izanen da. Kanpainak eta ikastetxeetako interbentzioa mantenduko ditugu, baina hurrengo plana prestatzeko ere baliatu nahi dugu», dio zinegotziak. Bertzeak bertze, hori izanen dute hizpide apirilaren 2an Beralandetan Udalak eta Askagintzak antolatuta eginen den ebaluazio jardunaldian. Aste horretan, drogen inguruko erakusketak ere izanen da Beralandetan, larunbatera arte.

EBALUAZIO JARDUNALDIA

- 10:00: ongi etorria, planaren ebaluazioa eta II. planerako ildoak ezarri.
- 10:30: ebaluazio eta ildoaren eztabaida taldean.

MARI CARMEN ALONSO, BERAKO GURASOA

«Gurasoen papera ezinbertzekoa da, seme-alaben ondoan egon behar dugu»

Bere seme-alabak nerabeak zirela, Beran gazteen artean droga kontsumitzen zela jakiteak kezka sortu zion **Mari Carmen Alonsori**, eta bera izan zen Askagintzako Txus Congil zenarekin harremanetan jarri zena. Halaxe hasi ziren Toki Ona Institutuan gurasoentzako hitzaldiak eta eskolak antolatzen. Handik, berriz, Congilek proposatuta, Berako Udalarengana jo zuten gurasoek eta hura ere izan zen Drogen Mendekotasunerako Bera Herri Planaren hastapena.

Plan honen bidez azken urteotan egin diren jarduerekin kontent ikusi dugu Alonso: «beldurrik gabe gaiari buruz solasteko gai naiz orain, eta bertze modu batera hartzen ikasi dut», adierazi digu. Baina hortik haratago, gurasoen papera ere nabarmendu digu: «gurasoen papera ezinbertzekoa

da, eta esku artetik joaten zaigun egiteko bat dugu. Seme-alaben ondoan egon behar dugu, baina eurek agobiatu gabe. Kontsumitzen badute, lagundu egin behar zaie, kontsumoa arduratsua izan dadin lagundu».



Mari Carmen ALONSO, Berako gurasoa

AITZIBER ESNAOLA, BERAKO GAZTEA

«Beran droga kontsumoa haundia da. Bazegoen zerbaiten beharra eta oraindik ere badago»

Labiaga Ikastolako ikasle zenean, ikastolako irakasleak Askagintzakoekin aritu ziren lanean eta horren bidez, irakasleekin drogen gaia landu zuten Aitziber Esnaola Berako gazteak eta bere gelakideek: «zer diren drogak, zein ondorio dituzten, nahasketek zein eragin duten... Ez ziguten erraten ez kontsumitzeko, baizik eta zer kontsumitzen den eta horrek zer ondorio dituen, hau da, kontsumo arduratsua egiteko». Nafarroa Oinez Beran egin zenean ere Askagintzakoekin egon ziren Esnaola eta bere lagun batzuk: «Nafarroa Oinez aitzinetik ikastaro bat egin genuen, eta Nafarroa Oinez egunean, Askagintzakoekin egon ginen. Edatek edo erretzen ari zirengana joaten ziren eta zer kontsumitzen ari ziren esplikatzan zieten». Bai eskolan landutako informazioarekin eta bai Nafarroa Oinez egindako kanpainarekin ere «gustura» gelditu zela ai-

tortu digu Esnaolak: «zuzenean 'ez egin hori' erran beharrean, erakusteko modu hobea da hori». Gainera, bere irudiko, «Beran droga kontsumoa haundia da, gazte eta gazteak ez diren artean, modu guzietako jendearen artean. Bazegoen horrelako zerbaiten beharra eta oraindik ere badago»



Aitziber ESNAOLA, Berako gaztea

- 11:15: taldean eztabaidatutakoa bat egin.
- 11:30: atsedernaldia.
- 12:00: hitzaldia: *droga-mendekotasunen fenomenoaren gaineko go-goeta*, Hilario Garrudo psikologo klinikoarekin.
- 13:30: akabera.
- Oharrak: doakoa da eta

izen ematea martxoaren 28a baino lehen egin (012) behar da. Ludoteka zerbitzua izanen da 3 urtetik goitikoentzat.



Nire txanda
Ruben GARATE

Inauteriak

Egun hauetan inguru honetako herri, auzo eta leku guzietan inauteri bestak ospatu ditugu, batzuk lehenago, bertzeak beranduxeago, baina denok ospatzen ditugu. Eta besta, desfile, mozorro eta abar luze hau begiratu, galdera bat egiten dut: ba al dakigu egiten inauterien egiazko erranahia edo gure besta-egitarau zabaleko bertze besta egun bat bertzerik ez da, ohituraz edan eta edan egiten duguna eta, arrazoi horregatik, denak balio duela uste duguna? Noiz sartuko zaigu juizioa eta ikasiko dugu garen pertsonak bezala konportatzen? Izan ere, inauteria, besta arras polita eta interesgarria izatetik, dena berdina zaigun asteburuko mozkorraldi bat izatera pasatzen ahal da, ez bada horretan bilakatu dagoeneko. Erran ohi dudanez, hau ez da kritika bat, nire apreziazio bat baizik, zer pentsatu izan dezagun.

Inauteria, besta interesgarria izatetik, dena berdina zaigun asteburuko mozkorraldi bat izatera pasatzen ahal da

Ezpala

Aitor AROTZENA

Urratu, hautsi, kixkali...

U lertzen ahal dut juergan gaudela pizari ezin kontu eta paretaren edo aterren baten kontra egin behar izatea. Ez baitugu komunikagure inguruan! Baina bestaren aitzakian, muturraren aurrean jartzen zaizkigun zaborrontzi guzirik irauli, erre kara bota edo kixkali, lore-poteak urratu edo jarleku eta bide-seinaleen tornilloak bakanaka kendu eta ateratzea? *Hau sasoia ta lanik ez!*

Nabarmentzekoak



Nieves LARRAYA
Errekako judoka

Martxoaren 5ean Puer-tollan (Ciudad Real) jokaturako Espainiako txapelketan urrezko domina eskuratu zuen Errekako judoka txantrearrak, 52 urtez beheitiko kategorian.



Lourdes ARRETXEA
Mexikoko Euskal Etxea

Jatorri elbetearreko margolaria, Mexiko DFko Euskal Etxeko lehendakari berria hautatu zuten otsailaren 26an, bera bezala jatorri baztandarra duen Miguel Larregiren ordean.



Peio IRIGOIEN
UCIko epaile lesakarra

Nafarroako Txirindularitza Federazioa kudeatzen duen batzordeko buru da eta maiatzean egingen diren presidentiarako hauteskundeetan aurkezteko asmoa azaldu du.



Atzera begira → 1998.03.26 / TTIPI-TTAPA 226. zbk

Elizondoko Poskonea lantegia ezagutzen

Guttitu sikikoek aitzinera eramaten duten lantegi berezia ezagutzera hurbildu zen TTIPI-TTAPA duela 13 urte Elizondoko Poskoneara. Orduan 30 langile aritzen ziren, industrian, lorezaintzan, obra tikietan eta arraultza salmentan. Xede nagusia, pertsona hauek gizarte eta lan munduan integratzea da, «baina gainerako enpresa guzietan bezala, produktuen kalitatea, prezioen kompetibitatea eta bertze baldintzak bete behar dituzte». Salvador Sobrino zuzendariak onartu zigunez, «lozezaintzan eta eraikuntzan ari direnak gehiago integratzen dira, beraien lana herriz herri, errepideetan edo partikularren etxeetan egiten baita».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Askatasun lezioak ematen urruneko autokrata bati

Mikel RODRIGUEZ (Lesaka)

Urte hasiera honetan Afrika iparraldeko eta Ekialde Hurbileko herrialdeetara begira paratu gaitu gaurkotasunak. Ez genekien ongi ez zeintzuek agintzen zuten herrialde horietan, ezta nola egiten zuten ere, eta orain harrituta ikusi dugu nola ehunka mila lagun ateri diren Tunisiako, Egiptoko, Libiako eta bertze hainbat herrialde-tako plazatarara eta karrikatarara. Harritu gaitu ere gobernuak herritarrak zanpatzeko erabili duten errepresioak. Akaso, hainbertze harritu gaitu, urte hasieratik gurean gertatu dena bigarren maila batean utzi dugula. Espainiako eta Frantziako Poliziek astero euskal herritarrak atxilotu dituzte, eta, gogorrena, bertze urte batez, tortura salaketak pilatuz doazela. Eta salaketekin batera, praktika hori ezkutatzeko agintariak eta haien aldeko komunikabideen kanpainak ere bere horretan dirau, lau euskal herritarrek jasan duten infernuaren berri eman dutenean, hedabide horiek Chacal-i buruzko pelikularen bateko gidoi batetik ateritako planean zentratu baitute arreta mediatikoa. Muammar Gaddafik Libian manifestazioak bonbardatu dituenen Euskal Herriko egoera aipatzea gehiegi banalizatzea eta erlatibizatzea dela pentsatzen duenik egonen da. Baina zinikoa eta negargarria da Europako herrialde bateko agintariak askatasun lezioak ematea urruneko autokrata bati,

«Zinikoa eta negargarria da Europako herrialde bateko agintariak askatasun lezioak ematea urruneko autokrata bati, haien poliziek neska bat makila batekin bortxatzen duten bitartean. Gaddafik, gainera, gure hurbilean arrakasta handia izan duen aitzakia bat erabiltzen du bere aurkakoak kriminalizatzeko, denak Al Kaedakoak direla erraten baitu. Espainian ez zaio argudio horri sinesgarritasunik ematen, baina Baltasar Garzon epaileak asmatu zuen 'dena da ETA' dogma bilakatu dute. Espainia ezberdina dela badakigu. Afrika iparraldean eta Ekialde Hurbilean alderdi politikoei legezkoak izateko izugarritzko zailtasunak dituzte, edo, bertzerik gabe, ez dago alderdirik. Ezta bidezkoa. Hemen, ordea, euskal gizarteko sektore garrantzitsu bati ordezkariak debekatzeak demokrazia indartzen omen du. Maquiavelo berak ez luke hobeki erranen. Baina noski, Euskal Herria ez da ez Tunisia, ez Egipto eta are guttiago Libia. Hemen ongi bizi gara. Erran hori kalabozaok ezagutu dituen norbaiti.

Emakumen Nazioarteko Eguna

Xanti BEGIRISTAIN (Iruña)

Zoritxarrez, nik esanen nuke, egun bakarreko ekimen horiek oraindik behar-beharrezkoak direla gaur egun, gizarte honetan, eta frogara, nik uste dut dela, inori ez diola aparteko graziaz egiten mugidak eta mobilizazioak antolatzen ibili behar izateak kale gorrian, batzuetan polizien jardunen aurka, modu deserroso eta arrisksuetan. Nik, gutxitu fisikoa eta euskalduna naizen aldetik, ateratzen ditut ondorio hauek. Gorago aipatu dudan bezalaxe, nik ez dut batere gogoko, konparaziora, euskararen eta elbarrien eskubideen alde errebindikatzeko aritu behar izatea, kalean, adin honetan, beste hamaika gauza interesgarri baitaude egin ahal izateko gizarte honetan, denbora, horretan xahutu gabe, baina, askotan kontzientziak bultzatzen gaitu hori egitera, arazo horiek gehiago azpimarratu eta konponbideak exijitzea, beharrezkoa eta guztiz ezinbesteko ekintza delakoan, horregatik egiten ditugu elkarretaratze eta kale-agerraldiak. Orain, gorago esan eta azaldutako hori guztia bota ondoren ere, era be-

«Administrazioek eta erakunde ofizialek ederki asko baliatzen dute martxoaren 8. eguna, beren gabeziak eta eraginkortasun ezak estali eta ongi zurrizteko. Bestela, urtean zehar askoz diru gehiago programatu eta erabili lukete, emakumeek pairatzen dituzten arazoak arindu eta konpontzen saiatzeko»

rean, ez dut batere arazorik adierazteko, nire ustez, administrazioek eta erakunde ofizialek ederki asko baliatzen dutela martxoaren 8. eguna, beren gabeziak eta eraginkortasun ezak estali eta ongi zurrizteko, bestela, konbentziturata nago, urtean zehar askoz ere diru gehiago programatu eta erabili luketela, emakumezkoek pairatzen dituzten arazo latz eta gorriak arindu eta konpontzen saiatzeko, esate baterako, genero indarkerian kasu ugari eta larriak, soldata ezberdintasun handiak, enplegua oso desorekatua, kanpoko eta etxe barruko lanak ongi uztartzeko zailtasunak, lantokiko sexu jazarpenak, matxismoa, hizkera, publizitate eta txiste sexistak, behartutako eta giza eskubide gabeko prostituzioa, eta abar, eta abar. Honetatik guztitik, ondorioztatzen dena da, tamalez, gizon eta emakumeen arteko benetako aukera berdintasuna oraindik urrutituta samar dagoela. Eta bukatzeko, ez dezagun ahaztu, batez ere gizonazko, hemen tratatu dugun gai luze eta konplexu hau, denona dela, eta ez bakarrik emakumeena.

Irakurleak mintzo

Karretoko Patzikuri

Artantxuko JOAMARI (Goizueta)

Irakurri diet hik idatzitako orria
hoinbeste hankasartze eta gezurrekin
egin baduk liburu berria
ederki jarri izango duk Goizuetako herria
argazki hau ez duk Lubineko pilota plazan
han 500 lagun baino gehiagontzat bazkaria zan
babarrunak, txistorra eta odolkia
egiten zuen hotzarekin bazkari egokia
ondoren nahiko bakailoa, ajoarriero
ardo ona ere bai
eta jarri ñuen bero bero
orain orri hau ikustea
ez nien espero.

Nere ustez nik ez diet egin gaizkirikan
ahal duanean lagundu baizikan
nik eztiel bota zutik sano dagoen zuhaitzikan
nere aurka ez esan hoinbeste gezur
eta ez egin hoinbeste akatsikan
Lizar haundiasri hirukia kentzeko
nik ez diet bota saratsikan.

Orain berriro Leitzen izandu nuk
eta ez ditek ongi esaten denak
nik hartu ditut batzuekin lotsak eta besteekin penak
ez ditut esan nahi hiregatik esan dizkidatenak
niri aurrez aurre esan hik
esan nahi dizkidakenak.

Sarats hori nik botea dela esaten duken bitartean
ez diet adiskidetasunik nahi hire ta nere artean
gezurrezko testiguk sartu nahi badituk tartean
ia zein ekartzen dituken, ez nauk izango apartean.



Bota bertsoa

Iban DUFURRENA (Baztango bertso eskola) • Doinua: Habanera

Udaberria heldu da

Kobazulo ilunean
negua pasatuzera
babesa bilatu nahian
bertze askoren antzera
ixilean irauarazi
erreserbak gastatzera
denbora hobetu arte
nola hala irautera
baina garaia heldu da
badoa iratzartzera
kanpoan ditu oihuka
hainbat anai ta arreba
euskal hartza gogoz dago
ta badoa indartzera
negu gordinarendako
iritsi da amaiera.

Euskal hartza gose dago
ta bete nahi du sabela
negua luze joan da
berak ongi dakiela
hartz goseti aunitz bada
beteta dago jangela
eta guztiek jateko
zatitu behar da pastela
indarra hartu behar du
eta borrokatu bela
kumeen etorkizuna
seguru dago horrela
hartz eme langilea da
bertze ainbertze bezela
udaberria esperantzaz
sortu berri heldu dela.

Lanbide
Heziketa:
aukeratzeko
unea iritsi daJose Miguel BETELU
(Administrazioan Euskaraz
Taldea)

Administrazioan
Euskaraz taldeak Lan-
bide Heziketaren aurre-
matrrikulazio kanpainan
Nafarroako Gobernu-
aren jokaera kritikatu na-
hi du (martxoaren 1etik
15era luzatzen da epea).

Derrigorrezko Biga-
rren Hezkuntza amai-
tzean, gazteek aukera
ugari dute ikasten jarrai-
tzeko. Ez da kontua soi-
lik Batxilergoa eta Lan-
bide Heziketaren arte-
an aukeratzea, Lanbide
Heziketa aukeratzeko-
tan espezialitateak as-
kotarikoak baitira.

Nafarroako Gober-
nuak Lanbide Hezike-

taren eskaintzaz infor-
mazioa emateari ongi
deritzoguz; egin duen
moduari, ordea, ez.

Egunkari batzuren bi-
dez, sei orriko liburuxka
banatu du. Ekimen ho-
rrek hurrengo kritikak
merezi ditu:

Lehenengoa.- Infor-
mazio osoa gaztelania
hutsen egin du. Eus-
kararen Legea bera ko-
lokan jartzen du horre-
la, egunkari horiek Na-
farroa osoan zabaltzen
baitira.

Bigarrena.- Informa-
zioa ez da erabat zeha-
tza. Leku gutxitan iza-
nik ere, nonbait bada
aukera Lanbide Hezike-
tako modulu batzuk
euskaraz egiteko. Horri
buruz, hitzik ez.

Hirugarrena.- Diario
de Navarra eta Diario de
Noticias aukeraterako-
an, beste egunkari bat-
zuk baztertu ditu. Hai-
en artean, adibidez, Be-
rria, euskarazko egun-
kari bakarra. Hain zu-

zen ere, orain dela gu-
txi, prentsa euskaldu-
nak bere estrategikota-
suna onartzea eta pu-
blizitatea instituzionala
jasotzea eskatu ditu. Al-
ferrik!

Bestaldetik, birgo-
goratu behar dugu Hiz-
kuntza Gutxituen Euro-
pako Kartaren aplika-
zioa aztertu zuten adi-
tuek erran zutena:
Irakaskuntza tekniko
eta profesionalean, ere-
mu euskaldunean, eus-
karazko irakaskuntza
bermatuta ez dagoela;
konpromiso hori ez de-
la betetzen. Jakina, ere-
mu 'euskaldun'-etik
kanpo ere bermerik ez
dago.

Azkenik, gazte eus-
kaldunei, aurrematr-
rikulazioa egiterakoan,
espezialitatearen on-
doan euskarazko hez-
kuntza nahi dutela az-
pimarratzea deia egi-
ten diegu, oraingo
egoera aldatzeko pre-
sioa egiteko.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

GOIZUETAKO ISTILUAK: IXIL MINEAN ONDUAK

Borda erre ondoko urgazle nobleak (3)

Patziku PERURENA

Ertauspean esnatu zitzaidan Irolako Borda 1998ko astearte ihaute goizean. Lau paretak ez beste guzia, arraso kizkalia. Nork eman zion su, beste baterako utziko dizut. Errentan zeukaten J.R.Zubieta aita seme tokaioak, betizuentzako, eta ganbara belarrez eta lastoz betexea. Ez nien sos baten ordainik eskatu. Eskean ere ez nintzen hasi, berek su eman, segurua jeitzi, eta gainera erruki faltsu eske datozen horien gisan. Aurreko axio guzien gainera, sari eder hura ere bihotzean gorde, eta bakar bakarrik ekin nion, berriz ere hutsetik, biziaren lezio zaharrari.

Obratuko lizentzia ere, holakoetan beti barkatua, kobratu egin zidan Herriak, eta hiru blokealdi altatzeko baimena, aski mesede banuela esan Miel Joxe Lekuonak, gaur alkate eta orduan zinegotzi zenak. Senideek lagundu zidaten barrenak garbitzen. Lau paretak berdindu, eta zurajerik haundienak (zapatat, astazaldiak, goiak) paratu ondoren, kapirioak Laxaro Ogaitolokoak, jornalean. Lata ere, gehiena neronek, senideen arrimoan. Zuraje berri guzia Auxonbordan egin, eta zaharrak Leitzatik: Torre, Pakone, eta Etxetxikiko errepusak. Nork esan?... Teila zaharra berriz, debalde eman zidan Patzikuk, Txamora-berriko teilatua garbitze aldera. Eta huraxe aski nik, hondulirne ginean paratzeko. Belaxe eman nion estalia bordari, Laxaro maisu nuela.

Hurrena, pareta errearek barrendik zarpeatzeko, eta zola berdintzeko, materiala Garañok ekarri zidan Iru-Erritik. Baita ura ere, Altxatoko Zokotik, CHDN ditxosozkoan legeratuz. Zortzi-rehun metro luze, bordarainoko tubo beltza. Biharamonean lurpean sartzerat banoa, eta 100 metro falta!... *Ostia! Hau ere badugul!*... Asnasi zipotua eztarrian nolabait askatu, lurrez estali aitzurka gainerako tuboa, eta jozak berriz beste ehunak erostera!... Handik gutxira, ura hartzeko aska, Laxarok berak egin zidan: berak eraman porlan bizia, berak egin istant batean askatua. *Hau ez diat kobratuko*. Ni harritua. Teilatu lanak ongisko pagatu nizkiolako, agian?...

Aurre hartan Goiko Ereba atarian arituak ziren Makatxa eta biek. Hura jakinik, Irolako zarpeo lana eginen ote zidaten, nik Laxarori. Ezetz, autodun norbait behar zuela. Segituan hartu nion errezeloa. Antonio Errekalde eta Ixak Santakrutx ekarri zituen. Aurreneko arratsaldean, borda inguruko haritz hostoa behar zuela Antoniok, sotoan zeuzkan ahariantzat. Bai, to!...nere zaku porlanak estali nahi hark Land Rover zaharrean. Nere baitan: *Ederki hasi gaituk!*. Bigarren egunean, bederatzi porlan zaku erdiustu, han hemenka sakanabatuak. *Hau ze saltsa da?* Ixak masagileari. Berek haundiago, halere. Harri eta zur ni. Ez lorik egin, ez jan... Hirugarren egunean, Antoniori kararik kara, porlanen azpilana. Bi begiak zuringo, palarekin zeharkeinu, bertan lepatu ez ninduenen!... Ixil aski joan ziren, halere, ostiral iluntze hartan hiruak, eta haritz hosto gabe, jakina. Anaia ekarri nuen igande goizez, neronek sinistu ezinak erakustera: zolako masa kasik hondar huts, paretetokoa halatsu. Ni baino zuriago anaia: *«Biño, nola ametittu duk hau?»*... Kontrola zak ba hik, Leitzatik!...

Lorik apenas egin nuen. Astelehen goizean euria ari zuen goian-behe. Banoa Leitzatik nere Suzukian. Zazpi eta erdiak, borda atarian. Zortziak bost gutxitan Antonioren Land Rover zahar soinua. Bixtara azaldu eta ni ikusi ordu, dida buelta emanda



Irolako borda, 1998ko astelehen ihaute gauean kizkalia.

ospa! Baita ni ere atzetik abailan. Igerri bainion dena. Jonantonionen harrapatu nituen, aurreko egunetan niri ostutako zaku porlanak bajaran deskargatzen. *«Hau bada gero ibillera!»* nik. *«Porlanak aztu zizkiguk eta»* Ixakek zakur. *«Porlanak aztu?! Ze ari zate ba deskargatzen?!»* nik, berriz ere: *«Beno beno, goazen bordara. Han hitzeiñen diu»*... Anaiari bezperan eginna berritu nien: zolako masaren ertza urratu ostikoz, bi egun oso pasa eta batere gogortu gabea; eskua pasa gero paretetan, eta hondar porlangabea lurrera pirtildan. *«Zeiñ engañatzea espero zenuten honekin?»*... Nere kontrako zera guzia, bapaten kolera bihurtu zaio Laxarori, eta bere onetatik aterea, paparetik hartu eta lurrean iraulka narabil, maldizioka bedeinkatu nahian. Deus egin ez balit bezalaxe zutitu naiz, halere. Ahulak zenbat indar duen ez baitu sekulan ikasiko indartsuak. *«Ni aixazpiratuko nozo, Laxaro, biño, koziñ hau da zure ispillu; ta azpin patu gabe utzi zun plastikua; ta ostu zenizkian tubok. Ze in dizut nik, burla oik itteko?»*... Nor zen ere ez zekiela, ukatu egiten zidan dena; tuboarenaz gainera, zolazpian paratzeko agindu bainion, bururen buruko plastikua, Errekaldene-

«Inor maite badut munduko edozein txokotan, bere inguruak hezitako artista da, lurra bere osoan lantzen eta zaintzen dakiena»

tik propio eramana, eta hura ere espaz paratu gabe utzi. Zergatik? Asma ezazu!... Aurretik niri egindako lan guziaz ongisko pagatuak nizkion, eta azkeneko tratua, miloi erdian egina. Banekien mahuka ederra zuela. Aste betean jostaka egiteko lana. Eta horra eskerral! Bai baita-

kit Laxaro izan zela axio guzien maisu.

Inor maite badut munduko edozein txokotan, bere inguruak hezitako artista da. Lur, zur, harri, abere, landare, lantzen eta zaintzen dakiena, gustoz eta aurrerako ilusioz. Eta horretan antzozorik bada, Laxaro da Goizuetan. Orain berriro, 2011-2-1ean, burlak kittatu eta pakeak egiteko aukera eman nion. Nahiko alkazia bertan zeukanez, hogeina zutoi egiteko hiruek, eta barkatuko niela dendena. Purrustian bidali ninduen haizea jostera. Mantxintxatik dena aditu eta, kontujanera Benaisorora atera zitzaidan Karmen Saizar aresoarra testigu. Ixaki deitu nion hurrena: *Bai gizona, hogueiña piketengatik, moldatuko al gittuk benpe!* Baina gero ezetz. Beste bi noblekin hala erabaki, nonbait. Horregatik nire hemengo kontuak, pozik gordeko nituenak. Ez baitzen gezur hutsa, Letek esandako hura: *sufritu duen gizonak ez du/ lotsarik behar galtzeko*.

Prentsatik bildutakoak

«Gurpildun aulkian, gauzak egiten ikasi behar izan nuen: janzen, aulkia bildu eta autoan sartzen, gidatzen (...) Orain ez naiz aulkiaz oroitzen ere. Ezagutzen nautenak ere aulkiaz ahaztu egiten dira, eta lehen aldiz ezagutzen nautenean bai konturatzeko dira aulkiaz, baina gerora ez diote kasurik egiten (...) Zure bizitzan etendura bat dago, baina normaltasuna etortzen da gero».

Haizea ERKIZIA
Doneztebeko gaztea
D. NOTICIAS, 2011.02.28



«Etxeko sukaldetik ateratzen zen andrea edo gizona plater batekin ateratzen zen. Baziren bertze batzuk poltsa eskatzen zigutenak, nahiz eta etxea bi metrora izan. Horiei, ordaintzeko diru eske joatean plater bat ekartzeko erraten genien (...) Hala hasi ginen (...) Otsailaren hasieratik, 400 tuper banatu ditugu eta orain bertze ehun eskatu ditugu».

Ixiar ELORTZA
Amaleun arraindegia (Bera)
GAUR8, 2011.02.25

11 galdera labur**Zer du mendiak zuri horrenbertze gustatzeko?**

Gauza aunitz. Paisaia, lasaitasuna, natura, kirola egiteko aukera...

Mendaurrera egunpasa edo Pirinioetara asteburupasa?

Posible izanez gero, Pirinioetara asteburupasa, bestela, Mendaurrera edo inguruko edozein menditara.

Bizitzeko mendia ala karrika nahia-go?

Mendia.

Ikasketaz basozaina, eta orain begirale izateko ikasten. Zer moduz moldatuko ote zara haurrekin?

Ongi, espero dut behintzat. Beti eduki ditut haurrak inguruan eta ongi moldatu izan naiz.

Zer pentsatzen duzu Sahararen egoeraz?

Gogorra izan behar duela egoera horretan hainbeste denboran bizitzea eta gainera, gobernuek ez dutela ezer egiten ikusiz.

Zer erakutsi dizu Salmak?

Gauza material guztien gainetik dagoela familiaren eta ingurukoaren berotasuna.

Nolako izanen da aurtengo Asteburu Kulturala?

Aurreko urteetako antzekoa. Ekitaldiz betea eta giro politarekin.

Sunbillako inauteriak ala bestak dituzu nahiago?

Inauteriak. Egun gutxi direnez go-go gehiagorekin bizitzen ditut eta giroa herrikoia da. Gainera, mo-zorrotzea pila bat gustatzen zait.

Sunbilla ez den besta egiteko bertze toki bat?

Giro ona eta jende jatorra dagoen edozein toki.

Bisitatu duzun tokirik politena?

Ezin dut bat bakarrik aukeratu, hainbeste leku polit daude: Euskal Herriko kostaldea, Pirinioak, Maroko basamortua...

Zer du soberan eta zer faltan Sunbillak?

Soberan ezer ez, eta faltan herriko sarrera on bat.



Izaskun ALTZURI → Sunbillako gaztea

PSIKOBIDE

PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaitez!!

Kolon Pasealekua, 64 behea • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psikobide.com



LANA → LAB ETA ELA SINDIKATUEN OHARRAK

Funverako kontratazioen harira kezka azaldu du LABek

ELAk, berriz, «enfretamendu artifizia» leporatu dio

TTIPI-TTAPA

Berako Funvera lan-tegiko LAB sindikatuak jakinarazi duenez, «azken al-dian gauza arraroak gertatzen ari dira lantegian, gauza arraroak edo guri behintzat kezka handia sortzen digutenak».

Duela urtebete baino gehiago kaleratzeen kontra egindako borrokaren azken egunak gogoratu ditu LABek: «kaleratzeen kontra ia bi hilabete borrokan egon eta gero, espediente onartu arren borrokan segitu eta momentu jakin batean haustura izan zen ELA eta LABen artean». Enpresak lau errelebo kontratu egitea eta hurrengo lau urteetako kontratazioak kaleratutako langileen artean egitea proposatu zuen, «artean mehatxuak eginez», dio LABek. Sindikatu honek ez zuen proposamena onartu eta ELAk bai. Bozketan egin ondotik, gehiengoak erabaki zuen borrokarekin bukatzea, «ahantzi gabe ELAko ordezkariak lanera bueltatzeko eskatu zieten langileei», LABen idatzian ageri denez.

Urtebetera, LABek kritikatu du lantegiak beto jarri diela kaleratuak izan ziren sindikatu horretako langileei, eta «ELA-

ko afiliatu edo jarraitzaileak ari da kontratatzen ia osotasunean. Enpresak errelebo kontratuak egin zituenean ELAko afiliatuak izan ziren lanera sartu zirenak. Dirudienez gure koherentzia ideologiko-sindikala ordaintzen ari gara», adierazi du LABek.

Lan hitzarmenaren negoziaketan, inolako bazterketarik egon ez zedin kontratazioak kalera-tuen artean antzinatasunaren arabera egiteko apustua egin zuen, baina LABen erranetan «zoritarrez ELArentzat ez zen hain garrantzitsua, puntu horren alde deus borrokatu gabe, eta noski hitzarmenaren puntu hori agertu gabe hitzarmena sinatu baitzuen».

Sartu diren langileen kontra deus ez duela erran du LABek, «gehiago sartzen badira hobe guretzat, baina salatu nahi dugu zuzendaritzatik diskriminazio sindikal



ARTXIBOKO ARGAZKIA

LABek egindako idatzari erantzun egin dio ELAk.

DISKRIMINAZIOA

«Zuzendaritzatik diskriminazio sindikal garbia ematen ari da LABen aurka»

Funverako LAB

EREDUGARRIA

«ELAk gehiengo duen lantegietan lanpostuak mantentzeko erantzun sindikala eredugarria izan da»

Funverako ELA

garbia ematen ari dela LABen aurka, eta egoera honen arduradunek izen abizenak dituzte». Gaineratu duenez, «13 kontratazioak egiteko ez dute sindikatu horretako inor deitu, eta erraten dutenean kriterio profesionala erabiltzen ari di-

rela gezurretan ari dira!».

Egoera honi buelta ematea den arduradurela uste du LABek.

ELA-REN ERANTZUNA

ELAk erantzun egin die LABen adierazpenei, «lariak, faltsuak eta onartezinak» direla eta bi sindikatuen arteko «enfretamendu artifizia» biltzen dutela leporatuz.

ELAk dioenez, Funveran kasik bi hilabetez greban egon ziren, erresoluzioaren aitzinetik eta ondotik, «neurri handi batean ELAk duen gehiengoaren ondorioz». Krisia hasi zela bi urte baino gehiago bete direnean egoera dramatikoak izan direla onartu du ELAk, baina sindikatu honek gehiengo duen lantegietan, «lanpostuak mantentzeko erantzun sindikala eredugarria izan da

eta Nafarroako Gobernuak EREa onartu ondotik ere segitu da grebakin». Horregatik, ELAri «harrigarria» egin zaio LABek neurtzeko erabiltzen dituen bi neurri ezberdinak, «Funverak izan duen borroka eredugarria kritikatu eta Marmoles Baztanen bezala LABek bakarka kudeatu dituen bertze batzuetan izandako bukaera eta despidoak, isilduz».

Funveraren kasuan, «LABeri ahaztu zaio kaleratutako 47 langileetatik 33 ELAko afiliatuak zirela», dio sindikatu honek eta hortaz, ez zaizkio onargarriak irudituko LABen hitzak. Kontratazioak antzinatasun irizpideak kontuan hartuz egin behar direla iritzioa dio ELAk eta hortaz LABek kritika enpresari egin behar diolakoan dago.

GIZARTEA

SUHILTZAILEAK → BOLUNTARIOEN LANA NABARMENDU DUTE

Suhiltzaile boluntarioen sarea mantentzeko ituna berritu du Gobernuak

Bera, Goizueta, Leitza eta Lesakako alkateek ere sinatu dute hitzarmena



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Gobernuko ordezkariak eta hitzarmena sinatu duten sei herrietako alkateak.

DATUA

4

UDAL

dira hitzarmena berritu diren eskualdeko ordezkariak: Bera, Goizueta, Leitza eta Lesaka.

TTIPI-TTAPA

Suhiltzaile boluntarioen sarea sustentzeko hitzarmena berritu dute Nafarroako Gobernuak eta Agoitz, **Bera**, **Goizueta**, **Leitza**, **Lesaka** eta Luzaideko udalak. Martxoaren 3an egin zuten Nafarroako Jauregian, Iruñean, akordioa berritzeko sinadura. Abudo, Izabako Udalarekin ere berrituko du Gobernuak hitzarmena.

Nafarroako Larrialdi Agentziarekin batera lan egiten duten 145 su-

hiltzaile boluntarioek osatzen dute sarea eta sua itzaltzen, errepideak garbitzen, zuhaitzak kentzen, galdutako pertsonak bilatzen, erreskateetan, ambulanzia trasladoetan edo par-

keetako mantenu lanean aritzen dira.

Javier Caballero, Nafarroako Gobernuko presidenteorde eta Presidentzia, Justizia eta Barne kontseilariak eta David Sainz Nafarroa-

ko Larrialdi Agentziako zuzendariak sinatu zituzten sei hitzarmenak Nafarroako Jauregian, herri bakoitzeko alkateekin batera: Agoizko Francisco Jose Enguita, **Berako Josu Ira-**

tzoki, **Goizuetako Miel Joxe Lekuona**, **Leitza**ko **Xabier Zabalo**, **Lesakako Juan Fermín Mitxelena** eta Luzaideko Fernando Alzon.

Javier Caballerok aipatu zuenez, boluntario taldeek profesionaltasun handiz lan egiten dute eta suhiltzaile profesionalak hain erraz ailegatzeko ez diren lekuetan nahitaezkoak dira.

Bidasoa, 41 • BERA
T. 948 630 560



NEGUKO BEROKIAK (neska eta mutilenak) 15€

JAIO BERRIENTZAKO BUZOAK 15€

MUTILENTZAKO KAMISETAK 5-10€

MUTILENTZAKO GALTZAK 10-15€

NESKENTZAKO KAMISETAK 5-10€

SOINEKOAK 15-20€

JAIO BERRIENTZAKO KONJUNTOAK 10€

BAINUJANTZIAK, BIKINIAK 5-10€

NEGUKO ETA UDAKO
ARROPA

LIKIDAZIOA

PROBEXTU AZKENEKO ASTEAK !!

TOPAKETA → GOIZ OSOAN TXISTU SOINUAK

Eskualdeko Txistulari Eguna Beran egingen da martxoaren 20an

Txistulari eta txistulari ohiei parte hartzeko deia egin zaie

TTIPI-TTAPA

Arantzari lekukoahar-tuz, aurtan Beran egingen da eskualdeko txistulariari elkartuko dituen Txistulari Eguna. Hilaren 20-an, igandea, izanen da.

- 09:30ean txistulari eta atabalariei ongietorria.
- 10:00etan dianak zazpi taldetan banatuta.
- 11:00etan gosaria.
- 12:00etan Altzateko Plazatik Herriko Etxeko Plazara kalejira.
- Segidan, elizako organoaren funtzionamendua azalduko du Josu Goiak, eta gero, *Aurrekua*, *Kortesko martxa*, *Xalbadarren Heriotzean* eta *Agur Jauna* piezak joko dituzte organo eta txistuarekin.
- Ondotik bazkaria.

Antolatzaileek egun honetan parte hartzeko gonbite berezia luzatu diete herriko txistulariei, baita txistulari ohiei ere.

Guardia zibilak eta gazteak

Guardia zibilak «ber- rriz ere gazteei molesta- tzen eta modu txarrean

tratutzen hasi» direla iku- sirik, Udalak ahobatez babesa adierazi die gaz- teei eta Berako kuar- telean zein Nafarroako Go- bernuaren delegazioan horrelako gertaerak izan ez daitezen behar diren gestioak egingen ditu. Udal batzarrean jakinara- zizutenez, «berriro badi- ra arazoak guardia zibi- lek gazteekin duten ja- rrerarekin. Izan dira abu- suak eta berriro hasi di- ra molestatzeko. Aldiro gertatzen ari den gauza da, lehen salatu zen, ba- retzen dira momentuan, baina gero berriro has- ten dira». Ez da kontu berria. Iazko martxoaren 31n, guardia zibil eta fo- ralen jokabidea salatu zuten prentsaurrekoan Udalak eta Kaxerna Gaz- tetxeak.

Hip-hop eta reggae besta Gaztetxean

Larunbat honetan, martxoak 19, hip-hop eta reggae besta egingen da Kaxerna Gaztetxean. 17:00etan graffitiak egi- nen dira; 20:00etan be- rendu afaria eta ondotik, kontzertuak eta break dance izanen dira. Ber- teke bertze, Goienetxe anaiak eta Norte Apa- cheren saioak izanen dira.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Inauteri ederrak

Argazkiei erreparatuz soma daiteke inauterietan eguraldia ez ezik, giroa ere alde- koa izan dela. Aipatu, halaber, lehen argazkian ageri den orgak irabazi zuela mer- katariek antolatutako mozorro lehiaketako lehen saria.



Mus txapelketa

44 bikotek hartu zuten parte hilaren 5ean Gure Txokoa elkar- teak antolatutako mus txapel- ketan. Irabazleak Jose Mari Zelaieta eta Jose Mari Irigoien izan ziren; azpitxapelidunak Iñaki Ugartemendia eta Joxe Zu- bieta; 3. Esteban Pikabea eta Txomin Elgorriaga eta 4. Mi- kel Arburua eta Iñaki Legazkue.



UTZITAKO ARGAZKIA

Sahararren aldarrikapen urteurrena

Arabiar Errepublika Demokratiko Sahararren aldarrikapen urteurrena dela eta, Gazte Asanbladak mural hau egin du kiroldegiko paretean.



Ba al zenekien...

Axe desodorantearen iragarkian ageri den mapan Bera seinalatzen dutela? Youtubeko bilatzailean 'Axe Funny Commercial' idatzi eta ikusiko duzue bideoa.



LESAKA

ELKARTEAK → JUBILATUAK LANEAN

40.000 euro inguruko aurrekontua izanendu San Fermin erretiratu elkarteak

Zuzendaritza batzordean ez dute oraingoz aldaketarik egin

Aitor AROTZENA

San Fermin erretiratu elkarteak 40.000 euro inguruko aurrekontua izanendu du aurten, otsailaren 26an egindako batzar orokorrean onartu zenez. Azken urteetan presidente izan den Carmelo Etxartek kargua uzteko asmoa du, baita batzordea osatzen duten 7 lagunetatik bertze batzuk ere, baina batzarrean izan ziren 70 bat bazkideetatik bakarrik erakutsi zuen batzordean sartzeko borondatea eta aitzineragoko utzi dute aldaketa. Joan den ortzirean, martxoaren 11n, bertze bilera bat

egiteko zuten aferaz solasteko. Bertze gainarakoan, ez da aldaketa handirik izanen 412 bazkide dituen elkarteak antolatuko dituen ekitaldietan. Martxoaren 19an, erraterako Aita eta Aitaxiaren Eguneko bazkaria egingen dute, 14:00etatik aitzinera. Beti ere, hamar lagun baino gehiagok eman beharko dute izena, bertzela, inauterietako afarian gertatu zen bezala, ez baita izanen afaririk. Urtero egiten dituzten bidaien artean hurrengoa, apirilaren 15ean Arantzazu eta Loiolara eramanen dituen izanen da.

Astelehen eta ortzegun arratsaldeko gimnasiarekin edo memoria eta nutrizio ikastaroeekin segituko dute aurten ere, baita gainerako lehiaketa, ateraldi eta eginkizunekin ere.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

Giro ederrean joan ziren Inauteriak

Aurten inauteriak astebete lehenago hasi zirela erraten ahal da, Mairuak eta kristauak ikuskizuna eskaini baitzuen Tantirumairu euskal folklore taldeak. Ortzegun Gizeneko Arraultze-Arraultzeak bidea eman zien zakozar tiki eta helduen harat-honatei. Goitarrak eta Fraindarrak ere ibili ziren baserri auzoetan. Asteleheneko karrozak ere ikusgarriak izan ziren. Plaza Tijuanako mexikar besta gisara jantzia zegoen, kantina eta guzi eta plaza inguruan Grand National zaldi lasterketa ikusgai izan zen, 16 zaldirekin, bertze hainbertze karroza eta mozorro ikusgarriekin batera. Inauteria goibeldu zuen *ekintza* bakarra, larunbat goizaldean plazako zaborrontziak eta informazio panela kixkali zuena.

MERKATU TTIKIA

MERKATU TTIKIA

OINETAKOEN
MERKATUA

15€
20€

LARRUZKO
BOTA LUZEAK

15€

2 PARE
ZAPATA

10€

ZAPATA
PARE BAT

MARTXOAREN 19an, Lesakan
Goizeko 10:00-20:00 (eguerdian itxi gabe)
DENDAN BERTAN

NEGUKO DENBORALDIKO OINETAKOAK

KULTURA → TELMO ESNALEN FILM BERRIA

Urteberri on, Amona! filma grabatuko dute hurrengo egunetan

Herri ttiki baten
bila etorri dira

Irune eta Itsaso

Telmo Esnalek zuzendutako filma da. Filmaren zati bat Donostian grabatu dute, baina herri ttikietako eszenak Etxalar eta Deban eginen dituzte. Filmak alzheimeraren inguruan gertatzen dena islatzen du, gaixoaren zaintza eta eguneroko bizitza, eta Gabonetan girtutako istorioa izanen da. Irusoinak, filmaren ekoiztetxeak, «komedia beltza» dela azaldu du, «umorez kontatutako istorio gogorra». Euskarazko filma izanen da, Benidormen grabatutako hainbat zati izan ezik. Oraingoan ere aktore ezagunak ikusteko aukera izanen dugu herrian, bertzeak bertze, Josean Bengoetxea, Kon-

txu Odriozola, Pedro Otaegi, Montserrak Carrulla (amonaren papera interpretatzen duen aktore katalana) eta Nagore Aranburu.

Herriko telefonoen liburuxka

Euskara Batzordea Etxalar telefonoen gida egiten ari da. Batzordekoak hilabetearen behin zentroan biltzen dira eta norbaitek bere etxeko zenbakiarekin aldaketaren bat egin nahiko bala eurei jakinaraztea eskatu dute.

San Jose kofradia

Martxoaren 19an San Jose egunarekin urtero bezala, San Jose kofradia 2010ean hildako kideen aldeko meza aterako du. Ondotik Elutsa ostatuan kideek urteko gastuak ordaintzeko aukera izanen dute aperi-tiboarekin batera.



ARGAZKIAK: IRUNE, ITSASO, IAGOBA ELIZAGOIEN

Inauteriak giro ederrean joan dira

Ortzegun gizenarekin eman zitzaian hasiera inauteriei. Eguraldia lagun, eskolako ikasleek hainbat antzerki eta dantza eskaini zituzten karrikaz karrika. Ondotik frontoian berendua izan zen trikitilariak alaituta. Igandean, **kinto bazkariak** eman zitoten segida inauteriei. Jende aunitz bildu zen herrira, bai bertakoak eta baita kanpokoan bizi direnak ere. **Astelehenean baserriz baserri** ibili ziren gazteak. Goizean goiz La Basque ostatuan egin zuten gosaria. Ondotik taldea bi zatitan banatu zen: batzuk goiko auzoetara eta bertzeak behekoetara trikitilariaren laguntzaz. Arratsean Elutsan pintxoak izan zituzten afaltzeko. Asteartean, inauteriei bukaera emateko, **karrozak eta mozorroak**. Denetara 8 karroza: piratak, petroleroak, tiro saloia, txiringittoa, pintxoena... Bertze gisako mozorroak ere ikusi ahal izan ziren: pailazoak, amona xaharrak...

F. LANCHAS
Akutxidatzailea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

BAR Botxo OSTATUA
Zelai • BERA • 948 630 052

LARRALDEK eta LINDOURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak
Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA | Tolleria auzoa • LEKAROZ | 948 452121 • 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212

sarobe
psicologia klinikoa
Ez da eztegiara 25 baxo
94700 berri(avarra) 1948 63 08 99
www.sarobe.net

BOZZ-AID
LARRALDEA
948 630 052 • LESAKA

IGANTZI

EUSKARA → KORRIKAREN 17. EDIZIOA

Apirilaren 11n herritik bertatik pasako da Korrikaren lekukoa

Berrizaundik sartu, eta Igantzin barna Lesakara joanen da

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 7an Trebiñun abiatu eta hamar egunen buruan Donostian bukatuko den Korrikaren 17. edizioa herri barrenetik pasako da. Apirilaren 11n, astelehena, izanen da, 2:30 aldera. Dena den, orain dela bi urteko edizioan, goitik beheitik laster egitea tokatu bazen, aurtengoan, alderantziz izanen da: beheitik goiti egin beharko da. Berrizaunen barna ailegatu da herrira, eta herritik Lesakarako bidea hartuko du Korrikaren lekukoak.

Korrikari dagokion guztia antolatzeko, Euskara Batzordea ari da lanean. Kilometroen salmenta egiten ari da, eta lehenbiziko aldiz, herriko denda eta ostatuetan Korrika Lagun eki-

mena egingen da, diru bilketa, alegia.

Udaberriko bestak apirilean

Normalean maiatzaren 1aren inguruan egiten diren Udaberriko Bestak, aurten apirilaren 15, 16 eta 17an izanen dira, data aldatzea erabaki baitu Euskara Batzordeak. Egitarauaren berri aitzinerago emanen dugu, baina zerbait aitzineratze aldera, aipatu, bigarren eskuko produktuen merkaturia egingen dela aldi honetan ere. Biltzen den dirua dantza talde-rako izanen da; batez ere, dantza taldearen arropa berritzeko.

Gogoratu, lehenbiziko urtean (2007an) azokako dirua herriko ma-

UDABERRIKO BESTAK

Dantza taldearen arropa berritzeko erabiliko da Udaberriko Bestetan egingen den bigarren eskuko azokan bildutako dirua.



ARGAZKIAK: JONE URTXEGI

Eguraldi txarrari aurpegi ona

Eguraldiak ez du sobera lagundu, baina hala ere, giro ederrean joan dira aurtengo inauteriak. 46 moztorro ibili dira baserri baserri eta etxez etxe eskean, Oihana Mindegia eta Oihana Elizalde aurtiztarrekin. Zozketaren saridunak, bertalde, Aizalegiko Josetxo Arburua – ardo lotea irabazi du – eta Akotraingo Jose Inazio Telletxea izan dira. Azken honek bildotsa eraman du.

pa egiteko izan zela eta 2009an abesbatzaren 20. urteurreneko ekitaldiak antolatzeko erabili zela.

Euskara Batzordetik jakinarazi dutenez, laster taldetxo bat ibiliko da etxez etxe, merkatu horretarako gauzak emateko gauzak eska-

tuz. Aitzineko aldietan bezala, oraingoan ere mota guztietako puskak bildu nahi dira: liburuak, musika, jostailuak... eta etxean egindako produktuak ere bai: kontserbak, baratzeiko produktuak, arraultzak, loreak, gozogintzako

produktuak, sendaberrak...

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

IRU BIDE
Enologia - Asaketa

Bilbo (Euzk.), 3^o Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
JATETXEA

T: 948 637 260 • LESAKA

elika
Dietetika eta elikadura

- Anabulazioa dietetiko eta nutrizionale
- Dieta personalizatua
- Gaiturik laguntza ematea
- Dietetiko teknika
- Dieta eta elikadura
- Gaiturik laguntza ematea
- Dietetiko teknika
- Dieta eta elikadura

Iñaki Andueza Lizaro
Itzaia, 6 beheko • BERA • Tel. 948 631 283 • elikabera@hotmail.com

Karsuk
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaideko aitziariak

Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

ELIZA → OBRAK

Elizako organuaren konpontze lanak hasi dira

Gastua ordaintzeko borondatea eskatzen da

Nerea ALTZURI

Hamaika istorio, hamaika kanta, hamaika lagun... Elizako organuak solasean baleki... Mende pasatxoko adina du musika tresna honek, zehazki 107 urte. Zaragozako Roqués Hermanos enpresak 1904an egin zuen. Aski ongi egin du bere lana urte horietan guzietan. Joxerrak, Martinek, Gregoriok, Beñatek... eta bertze zenbaitzuek tartean, organuaren tonu guziak jo dituzte. Eta herriko abesbatzaren laguntzarekin ospakizun ederrak izaten dira. Gainera, aditu batzuek aztertu ondotik, organoaren balioa goraiatu dute. Hala ere, hobekuntzak behar ditu funtzionamenduan mantentzeko eta joan den martxoaren 8an moldaketa lanetan hasi ziren.

Hernaniko Garbi enpresa pipiaren arazoa moldatzeko lanean burubelari ari da. Aste honetan lanekin bukatuta, bertze hiru asteko atse-

denaren ostein, Taller de organería Acitores delako enpresak hilabete batez bertzelako lanak egingen ditu.

Guzira, 20.000 euro pasatxoko gastua izanen du organoaren konpontketak. Gastu hau ordaintzeko bi bide proposatu dira:

Batetik, Nafarroako Kutxan honetarako espreski irekitako kontu korrontean, bakoitzaren borondatearen arabera diruz laguntzea. (50 eurotik goiti ematean errenta aitortpenen %20ko desgrabazioa izan dezan agiri bat jasoko da). Eta bertetik, *Zuk aukeratu zuk erabaki* programan, organoa moldatzeko proiektuari bozka emanez.

Guztion artean, hain altxor balioak den organua mantentzeko ahalgina egitea da xedea.

Halere, Vatikanoko, Aita Santuak... ez ote du diru pixka bat gure herriko elizako organoa moldatzeko?

Medikuaren etxeko bizitza

Medikuaren etxean egokitu den bizitza errentan hartu nahi duenak, apirilaren 5era arte izanen du izena emateko



ARGAZKIA: ZALDUA

Joseba Madariaga azpitzapeldun Malerreko txapelketan

Kirolen atalean, Malerreko eskuz binakako pilota txapelketaren inguruko berriak jasoko dituzue. Baina herriko kronika honetan, aipamen berezia egin nahi dugu Joseba Madariaga pilotari gazteari buruz. Aipatu txapelketa honetan Josebak, Iñaki Esainekin batera, txapelketa bikaina egin du. Finaleko partidatan, Arraztoa eta Onsaloren kontra aritu ziren. Madariagak eta Esainek galdu egin zuten, baina hagitz partida borrokatua eta polita izan omen zen, Erreka pilota taldeko ardurdunak erran digunez, azken zortzi urteetan izan den partidarik hobereana. Txapel-dunordeek, txapeldunek bezalaxe, 1.000 euroko saria eskuratu zuten.

epea. Kontratuaren baldintza plegua Herriko Etxean dago.

Zahar Txokoko kontuak

Urteko kontuen berri emateko batzarra egin du aurten ere Zahar Txoko jubilatuen elkarteak. Otsailaren 27an egin zuten, eta 137 bazkideetatik 32 bildu ziren. Iazko ekonomia izan zuten hizpide eta eskaintzen diren zerbitzuen errepaso ere egin zen:

- Eguneroko bazkaria etxetara eramateko zerbitzuak hagitz eran-

tzun ona du. Joan den urtean 4.000 bazkaritik goiti banatu ziren. *Zuk aukeratu, zuk erabaki* ekimenari esker ematen da zerbitzu hau.

- Ohatze artikulatu, gorpil-auki eta gisako tresna aunitz ere banatu dira Zahar Txokoren bidez, eta Martin Legarrrak adierazi digunez, «jendea hauen beharreen somatzen dugu erabat». Hala, etxean horrelako tresnak bazterturik dituztenei uzteko edo errentan emateko deia egin zaie, beharra duenarentzat lagun-

garri izan baitaitezke.

- Lesakako Intzuri Optikarekin duten akordioari esker, bazkideek zerbitzu berezia jasotzen dute optika horretan.
- Bidaiek ere ez dute hutsik egiten, eta aurten Frantziako Bretainia, Normandia, Paris eta inguruak bisitatzeko asmoa dute ekainean. Oraindik autobusa betetzeko eserleku batzuk gelditzen dira.

Bilera ondotik, elkarrekin bazkaldu zuten eta ondotik, Beñat Mitxelena akordeoilariak alaitu zien arratsaldea.

okaNa

 HARATEGIA / URDAITEGIA

Joseba Irujo & Comp.

 Tfno/Fax: 948 630 018

 Karitonberri 12 • BERA

948 631 218

 Karitonberri 1, BERA

 BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

aterpe

Aldeguen jirteko irakur

 T. 948 634 179

 ARANTZA

 www.arantza.net

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → ASTEBURU KULTURALA MARTXOAREN 25EAN, 26AN ETA 27AN

Txiste afaria eginen da Asteburu Kulturaleko larunbatarekin

Zare eder baten zozketako rifak salgai daude

TTIPI-TTAPA

Asteburu Kulturaleko egitaraua prest dute Ulibeltzak Elkarteak, Guraso Elkarteak, Antrotokiko gazteek eta Antzakaitz Kultur Taldeak. Ortziralarekin hasi, martxoak 25, eta igandean, hilak 27, akituko dira ekitaldiak eta nobedadeak ere izanen dira tartean, larunbateko txiste afaria edo txikipilota lehiaketa, erraterako.

Gisa berean, aipatu, zare eder baten zozketako rifak ere salgai daudela. Zarearen zozketa igande eguerdian eginen da.

MARTXOAK 25, ORTZIRALA

- 16:30ean haurren joakoak.
- Ondotik txokolatada.
- 22:00etan mus txapelketa Ulibeltzak Elkarteak.

MARTXOAK 26, LARUNBATA

- 11:00etatik 13:00etara txikipilota lehiaketa frontoian. Parte hartu nahi duenak jantzita joan beharko du, neskak mutilez jantzita eta mutilak neskez.
- 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00-

etara haurrendako puzgarriak izanen dira. Tartean berendua ere eginen da.

- 14:30ean bazkaria Ulibeltzak Elkarteak.
- Ondotik, zerrikume harapaketa.
- 19:00etan bizipoteoa.
- 21:30ean txiste afaria

Guillermo Segurola txiste kontatzaile azpeitiarrarekin. Honekin batera, akordeoilaria ere izanen da giroa gehiago alaitzeko.

MARTXOAK 27, IGANDEA

- 10:00etatik 13:30era Sunbillako IV. Gazta

Lehiaketa eta artisau feria.

- 11:00etan herriko trititilarien saioa.
- 14:00etan bazkaria Ulibeltzak Elkarteak.
- 18:00etan herriko neska-mutikoen dantza saioa.



ARGAZKIA: AINHOA ETXEBESTE

Bederatzi gazteren Sendotza

Argazkian ageri den bederatzi laguneko kuadrilla honek egin du aurten Sendotza. Ezkerretik eskuinera hauek dira gazteak: Janire Apeztegia, Maite Aranbillet, Nagore Madariaga, Sara Salaberria, Olaia Gandara, Aimar Lastiri, Andoni Espelosin, Oihane Alonso eta Amaia Goñi.

Dantza latinoen ikastaroa

Dantza latinoak ikasteko aukera eskainiko da herrian Barbaro Solo Lesakan bizi den kurbatarrarekin. Ortziral aratsetan izanen dira saioak, 20:30etik 21:30era eta apuntatu nahi duenak telefono honetara deitu beharko du: 661 845045. Hilabete bakoitzeko 20 euro ordaindu beharko da.

Sagardotegirik ez aurten

Ulibeltzak Elkarteak aurten sagardotegirako irteerarik ez antolatzea erabaki du. Dena den, apiril aldera sagardotegira joateko asmoak badaude gazteen artean.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

José I. González Enguita
DENTZARRAK

berriak eta fatxadak
tel. 666 235 466

ABACDEL
Analisi klinikoak

FIATC LACER AB

Aresa

Hematologia
Odol biokimika
Erreuma probak
Diabetes
GIB serologia
Tiroide
Hormona-probak
Tumore markatzaileak
Gernu-analisiak
Elikagaien intolerantzia

Ramón González-Vallinas
ANALISI KLINIKOETAN ESPEZIALISTA

Istingorra, 1 - behea • 20008 DONOSTIA
T. 943 210 872 • abacdel@yahoo.es
www.abacdel.com

GIZARTEA → AZPIEGITURAK

Bi hilabete barru akituko dira Malerrekako Mankomunitatearen egoitza berriko obrak

Zazpigarutze auzoan kokatuko da, osasun zentroaren ondoan

gunez, «erabat beharrezkoa» zen lokal berria. Zazpigarutze auzoan, osasun zentroaren ondoan kokatuko da, eta sei bulego, bilera gela, erabilera anitzeko gela bat, harrera eta artxi-boa izanen ditu, bertzeak bertze.

Merkatarien Karrikako egoitza Doneztebe-ko Udalak doan utzi izan du, baina berria Mankomunitateak erosi du.

TTIPI-TTAPA

Urteak daramatza Merkatarien Karrikan Malerrekako Mankomunitateak, baina denborarekin gero eta zerbizu gehiago eskaintzen joan da eta azkenerako ttiki gelditu da toki aldetik. Bi bulego, bilera gela eta harrera ditu oraingo egoitzak, eta lanean, berriaz, zazpi lagun normalean eta batzuetan gehiago: euskara teknikaria, hiru gizarte langile, bi administrari, idazkari-kudeatzailea eta astean behin ikuskatzailea. Horrez gain, bost etxez etxeko langileak ere hor biltzen dira, eta Malerrekako Mankomunitatearen bilertetan 20 lagun elkar-tesen dira.

Jon Etxague Mankomunitateko idazkari-kudeatzaileak azaldu di-

Olerki Errezitaldia

Elizondon eta Beran egin diren edizioen ondorekin, ortziral honetan, martxoak 18, egingen da Anasaps Dizdira elkar-teak antolatutako III. Olerki Errezitaldia. Ekitaldi irekia da eta Musika Eskolako behekaldean edo zinema deritzon aretoan egingen da, 19:00etatik aitzinera.

Sentsibilizazio eta dibulgazio ekitaldi bat antolatzea da helburu nagusia, baina aldi berean gaixotasun mentala duten pertsonen kolektiboaren integrazioa bultzatzea eta elkar-eta delegazioa zonaldean ezagutaraztea ere bai.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Karroza aunitz inauterietan

Ortzegun ilunabarrean hasi baziren ere, ortzireako eskea eta larunbateko karrozen desfilea izan ziren inauterietako ekitaldirik nagusienak. Gisa guzietako orga aunitz ikusi ziren larunbatarekin, eta horien artean, argazkian ageri direnak. Eguraldi ederrarekin eta giro onean joan dira aurtengo inauteriak.



ARGAZKIA: PABLO ELIZONDO

21 jaioberrien zuhaitza

Ohitura den bezala, urte osoan jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bat landatzen dute euren gurasoek. Eta aurten ere halaxe egin da. 2010ean jaiotako 21 haurrei dagozkien zuhaixkak otsailaren 27an landatu zituzten Ameztia mendian, Bordatxuri deitzen den bordaren ondoan. Dena den, azken momentuan eguraldiak okerrera egin zuenez, taldeko argazkia eta gosaria Aranzoko Elkar-tean egin zuten.

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL. 948 620474

Lentena
Banantzen
Mertzen
Jantzitokiak
Puzten Masak
Kaifogoria
Beneke plaza 10 31770 Lezoa
T. 948 627 514

Frutas
y Verduras
BRANDONEA, S.L.
FRUTAS DE CALIDAD GARANTIZADA
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

ITUREN

KULTURA → IZENDAPEN BERRIA

Ituren eta Zubietako inauteriak Interes Turistikoko Besta izendatu dituzte

Ospakizun originalak direlako aitortu die izendapena

Arkaitz MINDEGIA

Nafarroako Gobernuak, Kultura eta Turismo Departamentuaren bidez, Ituren eta Zubietako inauteriak eta Hiru Behien Zerga Nafarroako Interes Turistikoko Besta izendatu ditu. Aitorpen horren bidez, originaltasuna, herri tradizioa edo balio soziokulturalak oinarri hartuta turismoa handitzen lagundu dezaketen ospakizunak Nafarroatik kanpo ezagutarazi nahi dira.

Ospakizun originalak direlako eta herrian hagitz errotuta daudelako eman diete izendapena gure inauteriei, aspaldikoak direlako eta balio

etnografiko eta soziokulturalak dituztelako. Herriaren parte-hartzea eta bisitarien kopuru handia dira ospakizun horiek betetzen dituzten bertz bi aldeak.

Lehendik ere, Interes Kultureko Ondasun izendatuak zeuden Ituren eta Zubietako inauteriak.

Haur Kantari Jaialdia

Abian da aurtengo Haur Kantari Jaialdia. Eskualdeari dagokionez, apirilaren 2an Elizondoko Lur aretoan izanen dugu neska-mutikoak kantuan ikusteko aukera eta han izanen dira herriko eskolakoak ere. Hiru taldetxo osatu dituzte, Lehenbiziko, Bigarren eta Hirugarren zikloko ikasleekin eta dena ongi atara dadin, beraien gogo



ARGAZKIA: PEDRO BAÑARES

Doneztebeko Mendi abesbatzaren emanaldia larunbatean

Ibintza Kultur Taldeak antolatutako, larunbat honetan, martxoak 19, Doneztebeko Mendi abesbatzak kantatuko du Iturengo elizan, ilunabarreko mezan, eta ondotik, kontzertua eskainiko du. Baina ez da hor akituko kontua. Izan ere, Ibintza Kultur Taldeak hilabetero gisa guzietako ekitaldiak antolatzeko asmoa du, eta oraingoz Doneztebeko koralarena hitzartu du. Beste hilabetei begira burubelarri ari da antolatzen herriko nahiz kanpoko jendearendako egokituriko ekitaldiak.

eta animoak jartzen ari dira entsaioetan.

Hiru taldetxoek honako abesti hauek kantatuko dituzte: 1. eta 2. mailakoek *Pentagrama* abestia aukeratu dute, 3. eta 4. mailakoek Itoitzen *Lau teilatu* abesti mitikoa, baina Nahi ta Nahiez-en reggae bertsoan eta 5. eta 6. mailakoek ETBko Betizu taldearen *Lokaleko leiho-petik* abestia. Hainbat estilotako abestiak Iturenko eskolatik pasatutako musikariez lagunduta joanen dira.

Emakumeen eguna

Martxoaren 8a pasatu dugu berriki, Emaku-



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehiza denboraldia

Ehiztariei basurdeak harrapatzeko denboraldia akitu zaie. Herriko ehiztariek ere ederki akitu dute, basurdeak ehizatuz gainera. Orain, hurrengo urtera arte esperoan egon beharko dute.

mearen Nazioarteko Eguna. Eta egun horretan ez, baina asteburuan herriko emakumeak

afari baten bueltan biltzekoak ziren, dotore dotore afaldu eta irri botzuk botatzeko.

**BORTZIRI
UNSION ANIAIAK**
Sukalderako altzariak

Berean etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ZUBIETA

GIZARTEA → GERTAERAK

Elektrizitate poste batean izandako akats batek kezka sortu du herrian

Poste ondoko itxituran bildots bat agertu da hilik

Fermin ETXEKOLONEA

Batzuek diote lehenetik ere somatua zutela zerbait, baina ondorioa orain ikusi da, bildots bat hilik agertu denean. Aurreko euriteen ondorioz, argazkian ageri den soroko poste horretan akats bat egon zen, busti egin zen eta ondoko alanbrea elektrifikatua gelditu zen. Bildotsa horrat hurbildu eta hilik aurkitu zuten jabeek.

Kontua da, arrisku-tua dela eta horrek jendearengan kezka sortu duela. Postea bide ondoan dago, ardiak so-roan dabilta eta haurrek ere ukitzeko eskura dute. Lehenbailehen konpontzea litzateke onena.

Garardiko antena

Seinalea Garardiko antenatik hartzen duten herriko eta inguruko etxe asko ETB ikusi ezi-



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

Poste hau da jendea kezkatzen duena.

nik dabilta azken aldian.

Bost zubietar Haur Kantari Jaialdian

Apirilaren 2an Elizondoko Lur dantzalekuan egingen den Haur Kantari Jaialdian, Iturengo eskolako beste lagunekin batera, bost herritar iza-

nen ditugu: talde batean, bigarren maila egiten ari diren Naiara Anso Loiarde eta Saioa Mariezcurrrena Santestebanek parte hartuko dute; beste taldean, bigarren zikloan dagoen Haizea Artieda Iñiguezek eta hirugarren ziklokoen taldean, Duba Sahadik eta

Mikele Etxekolonea Diezek. Seguru ongi pasako dutela.

Inauteriak Interes Turistikoko Festa

Gauza jakina da gure inauteriak oihartzun haundia dutela herritik kanpo ere. Ospea ez ezik, bere balioa ere aitortu izan zaie eta horren seinale da Interes Kulturalako Ondare izendatuak direla. Berriki, berriz, ospakizun originalak direlako eta herrian oso barneratuak daudelako Interes Turistikoko Festa izendatu ditu Nafarroako Gobernuak. Aspaldikoak izatea eta balio etnografiko eta soziokulturalak izatea ere kontuan hartu dute izendapen hau ematerakoan.

Malerrekako Pilota Txapelketa

Martxoko lehenengo asteburuan akitu zen Malerrekako Pilota Txapelketa. Hainbat herritako pilotariak aritu dira txapelketa honetan, eta tartean herrikoak ere bai.

MUS

Eskualdeko hamar bikote Euskal Herriko Mus Txapelketaren finalean

TTIPI-TTAPA

Herriz herri eta herrialdez herrialde mus txapelketak jokatu ondotik, martxoaren 12an jokatzekoa zen Urruñan (Lapurdi) Euskal Herri Mus Txapelketaren final haundia. Nafarroatik 32 bikote ailegatu ziren finalera, eta horien artean eskualdeko hamar: **Areso**ko Gorka eta Imanol; **Leizatik** hiru bikote, Hegoi eta Galindo batetik, Joxe Mari eta Karlos bertetik eta Mikel eta Xabier ere bai; **Berako** Asier eta Bernard; **Arraiozko** Igor eta Peio; **Doneztebeko** Jon eta Joxe; **Elizondoko** Patxi eta Julio; **Erratzuko** Marko eta Joseba eta **Ornoz-Mugairiko** Patxi eta Joseba. Lerro hauek idazterakoan, oraindik zehaztu gabea zen bikote hauek zer egin zuten final haundian. Baina nabarmentzekoa partehartzaile kopuruaren gorakada izan da, Euskal Herri osoko 2.200 bikote baino gehiagok jokatu baitute musean zazpi herrialdeetako 250 herritan. 2009ko txapelketan 1.120 bikote parte hartu zuten, 2010ean 1.800 bikote animatu ziren eta aurten, markak hautsiz, 2.207 bikote aritu dira.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

zalain
JATETESA RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T: 948 631 106
w: www.zalain.com

zalain

URROZ

OSPAKIZUNAK → INAUTERIEN ERREPASOA

Otordu eta baserriz-baserriko eskearekin joan dira inauteriak

34 lagun bildu ziren ortziralarekin egin zen afarian

Joseba URROTZ

Harriketarren familia ia osorik (Pedro, Wilma, Pablo, Beti eta Dino maskota), pailazo kuadrilla, pinguinoak edo soldadoak. Horiek guztiak ibili dira aurtan base-

rriz baseri inauterietan eskean, traktore batean. Eta erran beharrik ez dago, bestarako go-go behintzat ez dutela faltan izan.

Halere inauteriak, bezperan, ortziralarekin hasi ziren. 34 bat lagun elkartu ziren Herriko Ostaturan afaltzeko. Biharamun goizean, berri- z, gazteak baserrietan eta arratsaldean haurrak herrian ibili ziren etxez



JOSEBA URROTZEK UTZITAKO ARGAZKIAK

Mozorro aski diferenteak ikusi dira inauteri hauetan.

etxe. Afarian dozena bat lagun bildu zen, baina

baserrietan ibilitakoetik inor ere ez. Igande-

ko bazkariarekin akitu ziren inauteriak.

IREKI BIDEA EZKERRARI

Abertzaletasunetik eta ezkerretik munduari irekiak.
Ezker abertzailea sendotzen eta XXI. mendeko ezker zibil eta zabala eraikitzen.



OSPAKIZUNAK → INAUTERIEN ERREPASOA

Ortziralarekin afaritxo bat eginez, eta inauteri egunean etxez etxe ibiliz joan dira inauteriak

Larunbat
gauean bertso
afaria egin
zuten

Markel LIZASOAIN

Bi guardia zibil agertu ziren herrian, bai eta inauterietara heldu zirela; pakearen izenean, ametitu zituzten, eta hantxen ibili ziren besteekin etxez etxe, isunak paratzen, lehenik Otxonean, gero Maxengo bordan, gero Manxengo bordan, Joaneko bordan eta Loprenge bordan. Hamasei hamazazpi gazte aritu

ziren Juan Luis Aranburu urretxuar akordeoilariarekin batean saltsan eta kantuan. Loprenean salda beroa hartuta, herrira etorri ziren behiak, behizainak, erlezainak, liztameak, boxeolariak, txapelokerrak, piratak eta beste.

BERTSO AFARIA

Egun guzia puskak jaten pasatu ondoan, ilunabarreko, ostatura erretiratu ziren, bertso afaria baitzen Iker Zubeldiarekin eta Iban Urdangarinekin. Ordu-rako, lagun mordoska bat bildua zen ostatuan. Pixgarriak jan eta



ARGAZKIAK: MAIDER ETA ZORION

Lehen argazkia, txapelokerrak gosaltzera nola etorri ziren; eskuinekoa, Urrutinan gazteak ibilitako lehen baserrikoa, Otxonekoa; azpiko argazkietan, mahaiaren inguruan jarrita, Maxengo bordako sukaldean, bigarren etxean; horren eskuinekoa, behi pintak eta boxeolariak, herriko etxe baten atarian. Eta handik goitikoak agertzea ez da komeniko!

edan ondoan, librean hasi zuten bertsolarien saioa, jendea pixko bat zirikatzen, eta, ondotik, gai batzuk paratuta aritu ziren, gai-paratzaile euskara garbi askoan zibilen babeserako komandantea zutela. Jende artean, bat edo beste ere animatu zen bertsoaren bat kantatzera

mikrofonotik. Saioa akituta, bertsolarien ihes egin zuten mahaitik, eta akordeoilariaren esku gelditu zen giroari eustea. Jendea ez zegoen hura bakarrik uzteko, eta mikrofonoa eskuan, kantari hasi zen nola euskal kantuak nola rantxerak. Batzuek dantza pixko bat egite-

ko gogoarekin gelditu izan behar zuten, baina, beste gainerakoan, eguna franko poliki joan zen launtsarra gorabehera.

Inauteri bezperan ere, kuadrilatxo polita bildu zen ostatura afaltzera, eta, afalondan, goizeko ordu txikiak arte, musean aritu ziren.

armadenda andueza

- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza gaiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

EZKURRA

GIZARTEA → ARRASTOEN BILA

Eratsunen ez ezik, baliteke Ollin auzoan ere makiak lurperatu izana

Juanito
Telletxearen
arabera,
bospaseiri
eman zitzaien
Ezkurran lurra

Fernando ETXEBERRIA

Eratsun aldean lurperatuak izan ziren hiru makiarren arrastoak aurkitzeko lanak oraindik bukatu gabeak badira ere, Ezkurran lurperatuak izan ziren beste maki batzuen datuak jaso ditugu. Zehazki, Ollin auzoan eman zitzaien lurra. Juanito Telletxea Ollingo auzotarraren hitzetan, Mikelenea bordako presak eta zentral elektrikoaren kanala abiatzen den tokiak muga egiten duten eremuan bi maki lurperatu ziren. Bere ustetan, ezinezkoa izango da maki haien arrastoa aurkitzea, 1947ko ur erauntsi izugarriak ingu-

ru hori hondatu egin baitzuen. Beste hiruzpalau maki lurperatu ziren tokia zentral elektrikotik hurbil dagoelakoan dago Telletxea.

Garai hartako udalak begiratu ondoren, ez da makiaren heriotzaren aipamenik ageri, baina guardia zibilek behin baino gehiagotan Barrankan eta Matxonean gauak pasatu zituztela bai ageri dela, eta gastua Udalak ordaindu omen zuen. 1946an eta 1947an, sei hilabetez armadako konpainia bategon omen zen Ezkurran, makiaren harat honatak ugarriak ziren ingurua kontrolatzeko. Halaxe ikus daiteke aktetan. Are gehiago, Udalak tropenburuengana ere jo behar izan omen zuen bost hilabetez herri lurretatik hartu zuten egurra ordain zezaten eskatuz. Herritarren arabera, herriguneko hiru etxe ere okupatu zituzten.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Badirudi toki hauetan lurperatu zituztela makiak.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Giro ederrean inauteriak

Aurrekoan esan bezala, otsailaren 26an egin zen inauterietako ekitaldi bakarra. Trikitilari eta Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin afaria egin zen, eta argazkian ikus daitekeen bezala, bi haurtxo txikiren konpainia ere izan zuten bertsolariek. 45 lagun elkartu zituen afariak, eta hurrengo eguneko goizaldean baziren oraindik juergan segitzeko asmoarekin zeudenak.


Lizun
GAZTANDEGIA
Sunbilla - Tel: 948 450 862


ola
SAGARDOTEGIA
102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

-  250 lagun eserita
-  Klimatizatua
-  Sagardotegiko menua

HEZKUNTZA → ESKOLAREN ETORKIZUNA ZALANTZAN

Eskola ez ixteko eskatzen ari dira herritarrak, Udala eta irakasleak

Alkateak, idazkariak eta gurasoek bilera egitekoa zuten asteartean Hezkuntza Sailean

TTIPI-TTAPA

Izarne eta Haritz Mariezkurrena Lasaga eta Amagoia eta Jasone Mindegia Benito. Lau horiek dira gaur egun eskolan dauden neska-mutikoak. Heldu den ikasturtean, berriz, Jasone Doneztebera joanen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) egitera eta 3 urte dituen Naroa Retegi Eskudero hasiko da eskolan. Hori horrela izanen da, baldin eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak emandako abisua egi bihurtzen ez badu. Izan ere, haur gutxi direla esanez, Eratsungo eskola itxi egin nahi du Hezkuntza Departamentuak.

Ikasturte honetan lau haur dabilta eskolan, eta hurrengoan ere halaxe izanen dira. Eskola ez ixteko gutxienez bost ikasle behar direla diote Nafarroako Gobernutik. Baina Nagore Eskudero gurasoak azaldu digunez, «hu-



ARGAZKIA: NAGORE ESKUDERO

Azaleko argazkian ageri den Jasone, Doneztebera joanen da heldu den ikasturtean, eta irudi honetan ageri diren Naroa, Amagoia, Izarne eta Haritz izanen dira eskolako ikasleak 2011/2012 ikasturtean, beti ere, Gobernuak emandako abisua egi bihurtzen ez badu.

rrengo urteetan haur gehiago izanen dira: bost, sei, zazpi...».

BEHERAKADA

Biztanleria bezala, ikasle kopurua jeisten joan da urteen joanean. Pedro Deskarga alkatea, adibidez, gogoan du bera ikasle zela gehiagoko izaten zirela: «neskak eta mutikoak aparte ibiltzen ginen, eta bi eskoletan 20tik gorazaten ginen». Orain amaden Nagore eskolan zebilela ere, gehiago zirenen, «bederatzi inguru izaten ginen», adierazi digu.

HERRIAN NAHIAGO

Ikastetxea itxiz gero, Doneztebera joan be-

harko lukete haurrek, eta gauza jakina da Eratsundik Donezteberako 15 kilometroko bidea nolakoa den: «20:15ean izaten da autobusa eta nik haurra 07:30 aldera esnatu beharko nuke, edo lehenagotik. Hemendik Doneztebera autobusean 30-45 minutu behar dira. Eta 3 urteko alaba Doneztebera bidaltzeak pena ematen dit, hain haur txikia izanda egun osoa kanpoan pasa beharko luke. Gero-ra joan beharko du, bai, baina orain 3 urte ditu», dio Naroaren amak.

Alkateak, bere alde-tik, eskola ixteak herriari asko kenduko liokela uste du: «haurrek he-

rriari bizitasuna ematen diote, errekreora ateratzen direnean nabaritzen da... Lehendik herria triste baldin bada, go, eskola itxita, tristeago geldituko da».

Horregatik ari dira eskolak zabalik segi dezan ahaleginak egiten. Itxieraren kontra hiru egunez 1.200 sinadura inguru bildu zituzten Gobernuan aurkezteko. Astearte honetan, berriz, martxoak 15, Hezkuntza Sailera joatekoak ziren alkatea, idazkaria eta bi guraso. Lerro hauek idazterakoan ez genuen bilera horren nondik norakoen berri-rik, baina herritarren eskaera behintzat gauza jakina zen: 2011/2012

HAUR TXIKIEGIAK

«3 urteko alaba Doneztebera bidaltzeak pena ematen dit, hain txikia izanda egun osoa kanpoan pasa beharko luke»

Nagore ESKUDERO

Naroaren ama

BIZITASUNA

«Lehendik herria triste baldin bada, go, eskola itxita, tristeago geldituko da»

Pedro DESKARGA

Alkatea

DATUA

1.200

SINADURA

bildu ziren hiru egunez eskola ez ixteko eskatuz.

ikasturtean salbuespena egitea, gerora, ikasle gehiago izanen direlako. Beste ikastetxe batzuetan bost ikasle baino gutxiagorekin egin dira salbuespenak –Legasan esaterako–, gerora ikasle gehiago izanen zirela bermatua zegoelako. Eratsunen ere horixe nahi dute.

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

aldizkaria etxera bidaltzea nahi baduzu,
deitu telefono honetara:

(0034) 948 63 54 58



NARBARTE

OSPAKIZUNAK → INAUTERIEN ERREPASOA

Ostaturik gabe ere, inauteri onak eta partehartzaileak izan dira

Kazekoren jabeen eta hainbat herritarren borondatea eskertu dute gazteek



UTZITAKO ARGAZKIA

Denetarikoz mozorroak jantzi dituzte aurten ere gazteek. Begiratu, bertzela, argazki honi.

TTIPI-TTAPA

Aurten Herriko Ostaturik itxita egonik, Kazekoren pabiloira pasatu behar izan dira inauterietako otorduak. Gazteak inauterietatik antolatzen ari zirenean, beldur pika bat bazuten aurten goak nola aterako ziren ez zekitelako. Baina aldatetarik aldaketa, giro ederrean ospatu dira; gainera, bertze urteetan ez bezala, herriko jende helduak ere partehartu du inauterietan.

ESKERRAK

Lerro hauen bitartez, herriko gazteek eskerak eman nahi izan dizkiete bai Kazekoren

pabiloiko nagusiei eta bai herriko hainbat andre eta gizoni ere, euren borondate eta laguntzagatik. Izan ere,

euren laguntzarik gabe ezinezkoa izanen litzateke, hain giro ederrean joan diren inauterietan hauek ospatzea.

GIZARTEA

Adineko pertsonen memoriari buruzko dokumentala estreinatu du Bidelagun elkarteak

TTIPI-TTAPA

Adinekoen memoria biltzeko eta kontserbatzeko proiektuaren barrenean, *Eguzkia laino* izeneko dokumentala aurkeztu zuen Bidelagun elkarteak martxoaren 11n Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Ikusentzunekoa *Gure adinekoen memoria. Oroitzapenak eta bizipenak* proiektuaren lehendabiziko ekimena da eta 65 urteko goitiko esperientziak eta testigantzak biltzea du helburu, gainerako belaunaldiak bizitzaren zentzuaz, sormenaz, familiariaz, bertako ohiturak mantentzeaz, lurrarekiko maitasunaz eta bertze arlo batzuetan hausnarketa egin dezaten. Adinekoen esperientziak elkarriketen bidez bildu ondotik, herri solasaldiak egingen dira, Oroitzapen Mahaiak osatuko dira eta ikastetxeendako material didaktikoa egingen da. *Eguzkia laino* lehenbiziko dokumental honetan emakume baserritarrak ageri dira batez ere, Arraiozko Mikaela Juanikotena eta Rosario Kariabururi egindako elkarriketekin.

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak eginez gero **KOTXKO LOREAK OPARI**

Herrikoenak dituzte, Herrikoenak elizara eta karguak hartu erretzeren dituzte, Herrikoenak eta berriko loreak, zehatzak, patata satia, herrikoenak dituzte zabalak.

ESTERNA

NARBARTE
T. 948 59 22 00

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!

Berria erosi taldea

Eskalerak igotzea... ez da oztopo! plataformak igogailu bereziak auki bereziak...

Behetik

Aforgo-biki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

Alberto RETEGI

abokatu

© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko **DOKUMENTU-POLTSA** bat lehen dago ageri!

15.996

TTIPI-TTAPA

OSPAKIZUNAK → INAUTERIEN ERREPASOA

Giro ederrean joan dira inauteriak

Eskolan Ortzegun Gizen eguna ospatu dute

TTIPI-TTAPA

Inauteri egunak gogotsu iritsi ziren Legasara. Ortzegun gauean egin zen afariarekin eman zitzaien hasiera bi eguneko besta, algarra eta mozorroen joan etorriei.

Ortziralean, egun epela eta eguzkitsua izan genuen etxez-etxe pusken bila joateko. Hauei esker, egun guztiko otorduak egin genituen. Eta arratsean elkartearen musikaren alaitasunarekin gaueko ordu txikiak arte hainbat

mozorro ikusteko aukera izan genuen.

Hala ere, egun handia edo koadrilaka mozorrotzeko eguna larunbata izan zen. Euriak ez zuen egun koloretsua zapuztu.

Goiz-goizetik denetik aurki zitekeen kaleetan barrena: raperoak, zirujanoak, kazafantasmak, haurdun zeuden emakume koadrila, sebillanak, piratak...

Bazkari goxoarekin berriz ere indarrak hartu eta DJ-aren emanaldiarekin berandu arte egon ziren mozorroak dantzan.

ORTZEGUN GIZENA ESKOLAN

Arratsaldean, eskolako neska-mutikoak



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gazteak eta helduak izan ziren inauteriak ospatzen lehenak, eta haurrek Ortzegun Gizen egunean atera zituzten euren mozorroak.

beren aita-amekin mozorroturik etorri ziren eskolara, pirataz jantzita. Hasierako orduan jolasten aritu ziren. Eta zer sorpresa hartu

zuten atean kax-kax entzun eta ireki zuten. Sorgin bat zen, urrutitik etorritako sorgin zaharra; kaixo eta agur erran ondotik, be-

rriz ere alde egin zuen. Ondotik, merendu goxo-goxo bat izan zuten eta hagitx gustora pasatu zuten Ortzegun Gizen eguna.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

BERA | SAN JOSE BEILATOKIA | 948 63 74 04
DONEZTEBE | SAN PEDRO BEILATOKIA | 948 63 74 04
ELIZONDO | FUNERARIA BAZTAN | 948 58 19 59
ELIZONDO | BAZTANDARRA BEILATOKIA | 948 58 19 59
LEITZA | LEITZAKO BEILATOKIA | 948 63 74 04
LESAKA | LESAKAKO BEILATOKIA | 948 63 74 04

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

GOIZUETA

TURISMOA → LEHENTASUNAK

Herriarentzako turismo plana aurkeztuko du Bizibiziki enpresak martxoaren 22an

Udaletxean egingen da plan estrategikoaren aurkezpena

TTIPI-TTAPA

Azken lau hilabeteotan landu den herriarentzako Turismo Plan Estrategikoa aurkeztuko du Bizibiziki enpresak martxoaren 22an, asteartea. Udaletxean egingen du aurkezpena, 18:30ean.

Turismoa nondik bidera daitekeen jakitea izan da Bizibiziki enpresari azterketa eskatzearen helburu nagusia. Horretarako bilerak eta inkestak egiten aritu da herriarrek, eta azterketa teknikoak ere egin ditu. Behin hori eginda, turismoa garatzeko lehentasunak zein izanen diren jakiteko ordua ailegatu da. Mieljoxe Lekuona alkateak aurreratu digunez, ehun orri inguruko txostenean, turismoa indartzeko balibide nagusia ingurumena izan daitekeela ondorioztatu da. Eta horren harira, Artikutzari etekin gehiago ateratzea proposatu da. Bestelako osagarriak ere aurkeztuko dira.

Plazako proiektua

Herriko plazako zoladura guztia berritzea obraren proiektua Maesic enpresari esleitu dio Udalak, 24.000 eurotan.

Umore Onaren ez-ohiko batzarra

Umore Ona Elkartearen egoitza haunditu ala ez, eta ezinduentzako nola egokitu. Hori izanen da hizpide martxoaren 26an egingen den ez-ohiko batzarrean. Bi aukera daude mahai gainean, guztia beheko solairura egokitu ala orain dagoena moldatu.

KOMISIOA BERRITUA

Otsailaren 26an egingako urteko batzarrean berri zuten Umore Ona Elkarteak zuzendaritza. Hauek dira zuzendaritza batzordean sartu diren kide berriak: Gorka Irarusta (diruzaina), Daniel Oartzabal, Eneko Lopez, Lazaro Aizkorbe eta Haritz Loiarde.

Komisioa utzi dutenak, beriz, Rakel Yartza, Idoia Albistur, Juan Ignazio Apezetxea, Daniel Narbarte eta Migel Angel Salaberria dira eta beste urte batez segituko dutenak Jose Jabier Etxeberria (lehendakaria), Ibai Zubiri (idazkaria), Pio Zugarramurdi eta Igor Apezetxea.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE ETA ANGEL SALABERRIA

Mozorro besta ederra

Ez dute ez Goizuetako inauteriek Sevillako Apirileko Feriaren inbidiarik. Espe-ro bezala, giro ezin hobean joan dira eta haur, gazte zein helduek gisa batera edo bestera gozatu dute.



Ardi batek lau bildots

Gutxitan izan dugu horrelako zerbait ikusteko aukera, edo beharbada sekula ere ez. Ardi batek lau bildots izan ditu Juantxo Apezetxearen etxean, Txamora berrin. Lautik bi eskutik ari dira hazten, baina garrantzitsuenak denak ongi daudela.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Denboraldia azkenera arte aprobetxatua

Denboraldia bukatzeaz zela, basurde hau harrapatu zuten Beti Gazte kuadrillak Gaztaotzako iturriko parajeetan.

AZPIEGITURAK → UDALAREN PROIEKTUA

Kunetak hormigoiez hartuko dituzte Kaxetatik herrirako zatian

Gehienez bi hilabete iraungo dute obra hauek

Kontxi eta Mainer

Joan den asteko asteazkenarekin hasi ziran kunetetan egin behar diren lanak. Arano-ra igotzeko azken hiru kilometroetan, hau da, Kaxetatik hasita herrira bitartean, kunetak hartuko dituzte hormigoiez.

Nahiz eta herritarrontzat momentuz oztopoa izan, bertan denbora dezente egotea tokatzen zaigulako, las-ter ikusi eta somatuko

dugu alde ona. Behar beharrezkoa ikusten dugu gidariok horrelako obra bat egitea, izan ere, lanak egindakoan, 70 zentimetro inguruan irabaziko du errepidearen zabalerak. Koska edo kuneta zulo handiegiak daude ia bideko zati gehienetan baztertu ahal izateko eta leku askotan kotxeak geldituta ikusten ditugu kontrakoa pasa artean. Gustura hartu dugu berri hau.

Obra honek hilabete eta erdi eta bi hilabete arteko iraupena izango duela iragarri dute. Beraz, maiatz aldean bukatua ikustea espero da.



ARGAZKIA: IDOIA ARANBURU

Inauteriak giro ederrean

Pasa zen otsailaren 26an ospatu ziren Aranon inauteriak. Eguraldiak askorik lagundu ez arren, ez ziren zomorroak etxean geratu. Talde ederra atera zen baserriz baserri fandango eta arin-arina dantzatzuz. Aurtengoan, gainera, Iruñeko eta Andoaingo dantzari boskote bat izan zen Aranoko ohitura zaharra bidez grabatu eta artxibatzeke asmoz. Norbaitek grabazioa ikusi nahi badu, Interneteko www.dantzan.com atarian dauka ikusgai goizean egin zen buelta. Arratsaldean zahagi-dantza polita egin zen. Aspaldiko urteetan misterio eta graxi apur bat galduta zuelakoan, aurtengoan gazteek traktore-ohe eder bat montatu zuten gure zahagi-dantzako zomorro maitaleentzat. Ez dira kexatuko! Ikusleentzat ere sorpresa polita izan zen. Gaueko kronika ere urteroko moduan, umore ederrekoa izan zen. Laja eta Narbaiza trikitilariak aritu ziren afalostea alaitzen eta ez zuten hutsik egin. Goizuetarrak ere bildu ziren Aranoko herri afarira eta denen artean festa-egun polita igarozen goizeko ordu txikiak arte.



ELGORRIAGA

BALNEARIO - BAINUETXE

Errotaldeia z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) | T. 948 45 60 45



sanvirila

hondatzaile de enarrilla



ESKAINTZA BEREZIA
Igerileku termalean
erlaxazio zirkuitua eta
bazkaria edo afaria

26€

MATUI ANIMATUI ANIMATUI ANIMATUI ANIMATUI ANIMATUI ANIMATUI ANIMATUI ANIM

Egin zure erreserba www.balnearioelgorriaga.com, reservas@balnearioelgorriaga.com edo 948 45 60 45ean.

LEITZA

ASIALDIA → HERRIKO HAINBAT ERAGILEREN EKIMENEZ

Puntako taldeak ariko dira apirilaren 2an egingen den Atekarock jaialdian

Berri Txarrak, Gose, Su Ta Gar, Kop, Vendetta eta Bad Sound System taldeak gonbidatu dituzte

TIPI-TTAPA

Elkarlanetik jaio, musikatik eraiki! lelopean jaialdi haundia egingen da apirilaren 2an, larunbatarekin, herrian. Herri mugimenduko hainbat taldek elkarrekin antolatatu dute ekimena, «etorkizuneko Herrigune izanen den eraikina moldatzeko helburuarekin, besteak beste». Halaxe diote *atekarock.blogspot.com* atarian.

20:30etik aurrera Berri Txarrak, Gose, Su Ta Gar, Vendetta eta Kop taldeek kontzertuak eskainiko dituzte kiroldegian. Eta 01:00etan, berriz, Gaztetxean Bad Sound System taldearen txanda izanen da. Gaztetxea goizaldera arte zabalik egonen dela iragarri dute.

SARRERAK

Aldez aurretik erosiz gero, sarrerek 17 eurotan eskuratu ahal iza-

nen dira. Toki hauetan eros daitezke sarrerek: Nafarroan, Leitza (Torrera), Lekunberri (Elosa), Elizondo (Txokoto), Irurtzun (Pikuxar), Altsasu (Lurrazpi taberna), Lesaka (Arrano Herrikoa) edo Iruñean (Karmengo Herrikoa eta Ezpala-Iturrama) eros daitezke; Gipuzkoan, Tolosa (Denak), Beasain (Arrano) eta Oreretan (Landare) eta Araban Gasteizen (Garraxi).

Banku transferentzi-az erosteko aukera ere badago, Euskadiko Kutxako 3035 0118 83 1181035243 kontu zenbakian.

Aldez aurretik erosteko epea martxoaren 25ean bukatuko da.

Aparkalekuak eta autobusak ere egonen dira. Bi autobus zerbitzu jarriko dira: Iruñea-Irurtzun-Lekunberri-Leitza egingen du batek eta besteak Tolosa-Villabona-Andoain-Leitza. Itzulerako zerbitzua ere jarriko dute.

Kontzertu gehiago Gaztetxean

Apirilaren 2a baino lehenagotik, ostiral honetan, martxoak 18, kontzertuak izanen dira Gaztetxean. Bilboko Rat-Zinger eta Elorrioko Sermond's taldeak

ariko dira 22:30etik aurrera.

Zuzendaritza berritu du Aurrera Kirol Elkartek

Otsailaren 18an egin zuen Aurrera Kirol Elkartek zuzendaritza berritzeko bilkura. Baina ez zuen erantzun handiegirik izan. Karlos Agirre azken sei urteotan lehendakari izan denak eta beste bi urtez ere karguan segituko duenak adierazi digunez, «elkartek 350 bazkide

ditu, baina batzarrean 10-12 lagun bildu ziren, eta gainera, bigarren deialdia zen, lehenengoan ez baitzen junta osatu».

Karlos Agirre lehendakariarekin batera, ondoko hauek osatuko dute zuzendaritza batzordea: Julian Zabaleta lehendakariordea izanen da; idazkaria Patxi Saenz eta diruzaina Iraitz Iriarte. Kirol koordinatzailea, berriz, Unai Olano izanen da, pilota eskolako arduraduna ere badena. Olano bo-

kala ere izanen da, Aintzane Arraizarekin batera. Gehienak ongi egutuzten dute elkar, lehendik zuzendaritzan daudenak baitira.

Batzordea bi urtetik behin berritzen da eta hurrengo bi urteetarako helburu nagusia «dagoenari eustea» izanen dela azaldu digu Agirrek. «Elkartek hamar komisio ditu eta bada- go lana –dio Aurrerako lehendakariak–. Gainera, krisiarekin dirulaguntzak ere murriztu egin dira».



ARGAZKIA: BERTSOZALE ELKARTEA

Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa zineman jokatu da larunbat honetan

Finalaurrekoetan sartu da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Lehen fasea bukatu eta finalaurrekoetan lehen saioa martxoaren 12an jokatzekoa zen Beran, eta bigarrena Leitza jokatu da larunbat honetan, martxoak 19. Zinema zaharrean izanen da saioa eta 17:30etik aurrera sei bertsolari ariko dira nor baino nor. Estitxu Arozena (Lesaka), Xabier Terreros (Lesaka), Iñigo Olaetxea (Lesaka), Ander Fuentes Iturri (Zubieta), Josu Sanjurjo (Lesaka) eta Migel Mari Elozegi Luze (Leitza). Bi izan dira txapelketa honetan parte hartu duten herri-tarrak: Jose Luis Barberia Zili (1981) eta Migel Mari Elozegi Luze (1970). Zilirentzat, bigarren Txapelketa izan da aurtengoa eta finalaurrekoen atarian gelditu da. Luze, berriz, bi aldiz ailegatu da Nafarroako Txapelketako finalera eta aurtengoa finalaurrekoetarako txartela eskuratu du. Bazkideen eta 16 urtetik beherakoen sarrerek 5 euro balio dute, eta helduenak 8 euro. www.bertsosarrak.eu webgunean ere eros daitezke.

gaztelu sol iturgintza
kalefakzioa · saneamendua · gasa
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

GIZARTEA → ENPLEGURAKO EKIMENAK

Herriko lanetan aritzeko langabea kontratatu du Udalak

Kontratuaren iraupena martxoaren 14tik irailaren 14ra

Juana Mari SAIZAR

Pasa den ostiralean egitekoak zituzten langilea hautatzeko probak eta astelehen honetan berean hastekoa zen lanean hautatua suertatu dena.

Oсотara 6 hilabete-ko kontratua egin zaio eta herriarentzat beharrezkoak diren lanetan aritzea izanen da bere egitekoa. Lan deialdian parte hartzeko nahitaezko baldintza zen Esko-

la Graduatuaren titulua izatea gutxienez eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana egotea. Urtarrileko datuen arabera, Areson 5 langabe zeuden, hiru gizon eta bi emakume.

Aresoko aldizkaria

Udalak eta Euskara Zerbitzuak proposatuta, aldizkari bat egin nahi da aurten Areson, protagonistak herria eta herritarrak direla.

Baina aldizkaria aurrrera ateratzeko lantalde txo bat sortu nahi da eta hortaz, aldizkaria egiten eta osatzen lagundu nahi duten guztientzat bilera eginen da martxoaren 21ean



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Emakumearen Eguna

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, joan den astean, *Las verdaderas mujeres tienen curvas* filma eskaintzekoa zen Pake Toki elkartearen. Eta gero han bildutakoak zerbait janez solasean aritzekoak ziren. Ez da, ordea, emakumeak biltzen diren lehen aldia. Argazkian ikus daitekeen bezala, orain dela urte mordo xka ere, emakumeak elkartu egiten ziren egun on bat pasatzeko, afalduz eta dantzatzuz.

19:00etan. Proiektua irekia da, eta herritar guztiak daude parte hartzerako gonbidatuta.

Igeriketa eta dantza ikastaroak

Martxoaren 21etik ekainaren 2ra, astebitan, ordu erdiko igeriketa ikastaroa antola-

tu du Guraso Elkarteak. Horrekin batera, dantza ikastaroa ere antolatu nahian dabilta, baina oraingoan, irakaslea aurkitzeko zailtasunekin dabilta.

Otoitzaldia hilabetero

Asis sareko otoitzaldia

izanen da hilabeteko azkeneko ostegunetan, 19:30ean. Lehen aldia da hau Areson egiten dela eta frantziskotar bat etorriko da.

Ekimen hau hainbat parrokitan egiten da ordu eta egun berean, eta seglarrek zuzentzen dute frantziskotarren gidoiari jarraituz.

edredoi finak
albornozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindileak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

BAZTAN

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO TXAPELKETA

Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa martxoaren 26an eginen da Lurren

Orduan erabakiko da zein izanen diren finalistak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 40. edizioa ere azken txanpara hurbiltzen ari da. Dagoeneko 18ra murriztua da lehiakide kopurua eta asteburu honetan Leitzan eginen den bigarren finalaurrekoaren ondotik, martxoaren 26an Elizondoko Lur dantzalekuan eginen da hirugarren eta azken finalaurrekoa. Orduan erabakiko da zein zortzi bertsolari ariko diren apirilaren 9an Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu den final haundian.

Sei bertsolari hauek ariko dira Elizondon 17:30etik aitzinera: Julio Soto (Gorriti), Xabier Silveira (Lesaka), Aimar Karrika (Auritz), Julen Zelaieta (Bera), Iñigo Ibarra (Iruñea) eta Aritz Saragueta (Betelu).

Finalaurrekoetarako eta finalerako sarrerak www.bertsosarrerak.eu atarian salgai daude.

Erakusketa ibiltaria Elizondon eta Almandozen

Nafarroan herriz herri

dabilen *Lotu zaitez birziklapenari* erakusketa **Elizondon** egonen da aste honetan. Larunbatera bitarte Arizkunenea Kultur Etxearen gibelako aldean izanen da. Martxoaren 23an eta 24an, berriz, **Almandozera** joanen da. Frontoiaren ondoan paratuko dute ikusgai.

Erakusketa honen helburua tresna elektriko eta elektronikoen erabilera egokiaz ohar-taraztea da.

Barazkigintza ekologikoa ikasteko aukera Amaiurren

Barazkigintza ekologikoaren inguruko ikastaroa antolatu dute Amaiurren, gizarte segurantza/agrarioan edo langabezia dagoen edozeinentzat.

Sei saio eginen dira: apirilaren 19an, 26an eta 28an eta maiatzaren 3an, 5ean eta 10ean. Amaiurko Otsondo gelan izanen dira, 17:00etatik 20:00etara.

Izena emateko epea apirilaren 10ean akitu-



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Akitu da aurtengo mozorro besta

Aurtengo inauteriek ere eman dute eurena. Herriz herri giro eta umore ederrean ospatu dira, toki bakoitzean ohiko ekitaldiak eginez. Argazki hauek Lekaroz, Elizondo eta Erratzuko inauterietakoak dira.

ko da eta parte hartu nahi dutenek 659 099309 telefonora deitu beharko dute edo otsondo@terra.es helbidera idatzi.



Ba al zenekien...

Transpyr Adventure kirol proban parte hartzeko Baztango Udalak egindako zozketan bikote bakarra apuntatu zela, eta hark datagatik ezin izanen duela joan? Hortaz, ez da Baztango ordezkari izanen Pirinioak bizikletaz gurutzatzen duen proba honetan.

Zeramikaren benta
Venta du Carrelage

asteartetik ostirala arte
09:00-12:30 / 14:30-19:00
larunbata
09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta
31710 Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Fax.: 00 34 948 59 93 02
Mug.: 06 15 11 52 23

www.laventaducarrelage.com

UDALA → OPOSIZIO-LEHIAKETA

Bi atezain kontratatzeko deialdia zabaldu du Udalak

Bat udaletxera-ko eta bertzea San Francisco Jabier ikastetxerako

TTIPI-TTAPA

Zerbitzu anitzetako bi langile finko hartzeko eskaintza zabaldu ondotik martxoaren 23an akituko da aurkezteko epea, bertze bi langile finko hartzeko deialdia egin du Udalak: udaletxean eta San Francisco Jabier ikastetxean atezain edo etxezain bana kontratatzeko, hain zuzen. Apirilaren 7rako aurkeztu beharko dira eskaintzak.

Lanposturako aurkeztzen direnek eskola graduatuaren titulua, euskararen ezagutza frogatzen duen agiria eta B mailako gidabaimena izan beharko dituzte.

UDALETXERAKO

Udaletxeko etxezaina-

ren egitekoak, hala nola, hauek izanen dira: atek ireki eta itxi; telefonoa, faxa eta posta elektronikoa irabazteko kontrolatu; fotokopiak eta eskanner lanak egin; udaletxeko eta kanpoko langileei harrera egin; argindarra, gasa eta gainerako zerbitzuen erabilera egokia kontrolatu; lokalen garbiketaz arduratu; botikinen ardurara...

ESKOLARAKO

Eskolako atezainaren egitekoen artean hauek daude: eskola orduetan atezaintzaz eta berogailuaz arduratu; eskolako altzari, makina, instalazio eta lokalak zaindu; bulego eta geletako giltzak zaindu; atek ireki eta itxi; ate nagusian harrera egin; bere esku utzitako dokumentuak hartu, zaindu eta banatu; telefono eta faxaz arduratu, baita paketeak kontrolatu eta entregatu ere;

GIZARTEA → AROZTEGIA... ETA GERO ZER? PLATAFORMAK IRAGARRI DU

Udalak argitaratutako behin betiko onespeneri helegitea jarriko diote



Otsailaren 21eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Aroztegia alderdian egin nahi den proiektuaren harira, Udal Planaren aldaketaren behin betiko onespenera argitaratu zuen Udalak. Aroztegia... eta gero zer? plataformak, ordea, Udalak argitaratutako behin betiko onespeneri helegitea paratzea erabaki du, «Udala ez delako erabaki hau hartzeko organo kompetentea eta tokiz kanpo dagoelako». Plataformak oroitarazi duenez, «behin betiko aldaketa egitea Nafarroako Gobernuari dagokio bakarrik». Pentsara igorritako oharrean dio, «behin betiko onespenera hau Nafarroako Gobernuak jadanik aldaketa honi 2010eko irailaren 13ko 162/2010 Etxebizitza eta Lurralde Antolaketako Kontseilariaren Foru Aginduaren bidez eman ziola. 2010eko urriaren 13an

Udaleko osoko bilkura arruntean ez zen inongo behin betiko onespeneri eman aipatutako aldaketari, Udalarik ez dagokiolarik, Udala Foru Aginduaren edukiez jabetu bakarrik egin zen». Egoeraren aitzinean, plataformak helegitea jarriko du Nafarroako Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian: «Udal Planaren aldaketa honek legea betetzen ez duela uste dugulako, inposatutakoa eta herritar gehiengoaren interesen aurkako izateaz gain». Lerrook idazterakoan kasua tramitatzen ari ziren eta epaiketa oraindik hasi gabea zen.

Aroztegia proiektu honekin «denbora eta baliabide publikoak alferrik gatzatzen» ari direla leporatu dio Udalarik, «herritarrek nahasi eta manipulaztea helburu bakarrik duen alferriko tramiteetan».

ikastetxe barrenean behar diren materialak, altzariak eta tresnak garraiatu; zuzendariari eta irakasleei lagundu; partien eta jolastokiaren garbiketa; botikinez arduratu...

OPOSIZIO-LEHIAKETA

Bi kasuetan oposizio-le-

hiaketak bi zati izanen ditu. Lehiaketaldian mezimenduak hartuko dira kontuan: administrazio publikoan edo arlo pribatuan egindako lanak, ikasketak, prestakuntza...

Oposizioaldian, lehen ariketan erantzun laburreko edo test motako

galdera batzuei idatziz erantzun beharko zaie. Bigarren ariketan, bate-tik, informatika proba egingen da, praktikoa; eta bertetik, gai jakin bati buruzko azterketa praktikoa edo teorikoa.

Deialdiaren xehetasun gehiago www.baztan.es webgunean.

SUKALDEKO OLIOARENTZATZATZ EDUKIONTZI BERRIA!
BAZTAN, MALERREKA eta BORTZIRIAK

- Gaikako biketa zerbitzua zabaldu eta hobetzeko, erabilitako sukaldeko olio biltzeko edukiontzi berriak jarko ditugu kalean.
- **Kokapena:** Elizondoko Salvador eta Aldudes kaleetan. Inurita: Berueta-Ziga errepidean. Arizkun: Herriko plazan. Doneztebe: Merkatuko plazan eta Aparan industrialdean. Sunbilla: Ramon Latasa plazan. Harbaita: Frontoian-trinketean. Berr: Agerra auzoan, Iturlandeta auzoan eta Ezdegara kalean (institutoa). Lezaka: Eitzeta kalean (Alprox) eta Arretxea kalea, 6. Ijantzi: Aparkalekua-bus geltokian. Arantzua: Herri sarrerako aparkalekuan. Etxalar: Herri sarrerako aparkalekuan.

- Sukaldeko olio bakarrik utzi. EZ kotxeak, ezin baidira nahastu!
- Olio ondo itxitako ontzietan utzi behar da edukiontzi barruan.
- Olio hau biodiesel bihurtuko da birziklatu ondoren.

ECOGRAS
HOSTALARITZA ZERBITZUA
Informazioa
902 366 251
www.ecogras.es

Lehen eta ondoren kolektore berriak: EUI04004
Herriko errepidean gertatzen kolektore berriak: EUI13185

BAZTAN

KANPAINA → FORU POLIZIAREN KANPAINA

Foru polizien ordez Gizarte Zerbitzuak sendotzea eskatu du Ezker Abertzaleak

‘Adineko bat ere ez bakarrik baserrietan’ kanpainaren harira egin ditu adierazpenak

TTIPI-TTAPA

Baserrietan bakarrik dagoen adineko jendea babesteko kanpainaparratu du abian Elizondoko Foru Poliziaren komisiariak, *Adineko bat ere ez bakarrik baserrietan* deitu dutena, hain zuzen. Kanpainak, ordea, aldeko eta kontrako iritziak bildu ditu. Ezker Abertzaleak prentsara igorritako oharrean, neurri berri honen harira zenbait gogoe-ta egin ditu: alde bate-tik, «baserrietan bakarrik dauden adineko jendee-ren zainketa egiazko arazoa» dela dio, «arazo larria, modu bereko erantzuna eskatzen duena». Bere irudiko, «horretara-

ko udaleko zerbitzu soz-ial eraginkor batzuk behar dira, baina hori nekez erdietsiko da NaBaik erakutsi duen axolagabekeriarekin». Gisa berean, Baztangoa «Bortzirietako edo Malerre-kako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak baino aise gibelerago dagoela» adierazi du.

Bertzalde, UPNren jarrera ere kritikatu du: «Nafarroako Gobernuak oraingo krisiaren testu-guruan, azpiegitura zentzugabeetan sosa gas-tatzen duen bizkitarte-an, gizarte zerbitzueta-ko gastuak aldiro murrizten ditu».

Baserrietara foru poli-ziak bidaltzeko eraba-kiaren kontra dago Ezker Abertzalea: «arazo sozia-len aitzinean irtenbide polizialaren aldeko joera beldurgarria eta sala-garria ikusten ari gara. Eta orain, adineko jendeak dituen beharrak artatzeko, laguntza eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehunka erosle Bertan elkartearen bosgarren aukeren azokan

Bertan Baztango Merkataria, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresa Elkarteak bosgarren aldiz egin duen aukeren azokaren erantzuna ikusita, merkataria gustura gelditu dira jendearen parte-hartzearekin, nahiz eta krisia eta hilabete hondarra izatea ere nabaritu. Otsailaren 26 eta 27ko azokan, 15 merkatarik parte hartu zuten: Ipingi, Fantxike, Kattalingorri, M^a Cruz Ientzeria, Mallenea, Argibel optika, Arkilanak, Pottoki, Virgilio, Malkorra, Urregiñe, Zagua, Nafarpress, Burda-in eta Izetak. Eta Etxaideko Errotako taloak dastatzeko aukera ere izan zen.

zerbitzu berriak eskaini beharrean edo gizarte langile gehiago kontratatu beharrean, polizia gehiago!».

Gizarte arloko lanetan aritzeko jende prestatu anitz badagoela gogoratu du Ezker Abertzaleak, «gehienak, hori bai, langabeziako zerrendetan. Haatik, nahia-go dute gizarte arloan inongo formakuntzarik ez duten pertsona armatuak bidali adineko jendeak gainbegiratzera».

Udala «zorpetze mailaren azpitik»

«NaBaik gobernatzen duen Udalaren egoera

ekonomikoa larria» dela erranez UPNk egindako adierazpenei ohar batekin erantzun dio NaBaik. Honen arabera, «Udala zorpetze mailaren azpitik dago». Kontuhartzaitzaren Txostenak hala erakusten duela gaineratu du NaBaik, eta «2011-ko aurrekontuaren onar-penerako txostenean agerian gelditzen dela». Orain arte argitaratuta-ko Kontuen Ganbararen Ikuskaritza Txostenetan, «Udalaren egoera eko-nomiko normalaren berri ematen dela» ere ageri da idatzian. «Udala eta Baztango gizartea ez gaude jarduera ekono-

mikoa eta enplegua murriztu dituen krisialdieko nomiko orokorraren egoeratik kanpo—dio NaBaik—, baina gure borondatekoak ez diren arrazoiengatik da». Gisa berean, ekimen bideragari eta arduratsuak proposatzeko «gogotsu lan egiten» ari dela ere jakinarazi du, eta UPNri, berri-z, mezu hauxe: «akusazio faltsu hau behar den aldietan ezeztatuko duela, ziuraski hauteskude kanpaina dela eta, beharko delako».

Sortu berri duen blogaren berri ere eman du: www.baztanbidasoana-bai.wordpress.com.

ANXITONEA
Turismo

24 ingela haitzarenak • Apurkalekua
Aste gutxiago gela puztatzen • Hain trankila eta TI
Gela berria saski- eta kate zerbitzuarekin

Braulio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea,
goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

URDAZUBI

OSPAKIZUNAK → INAUTERIEN ERREPASOA

Eguraldi eta giro ezin hobean ospatu dituzte gazteek inauteriak

Musika doinuekin kuadrilla ederra ibili da etxez etxe eskean

TTIPI-TTAPA

Ezin zen gehiago eskatu: eguraldia ederra eta bestarako gogoa ere halakoa. Umore ezin hobean joan dira aurtenera inauteriak, eta balorazio bat egiteko eskatuta, «arras gustura» pasatu dituzte erran digute gazteek.

Igande goizean gosaldu ondotik, garaiz abiatu ziren Bendetara eta ilunabarrean ere, 19:30-20:00 alderako egina zuten herrira buelta. Gazteek igande gauean pintxoak jate-

ra mozorrotuta etortzeko gonbiteari ere kasu egin zieten batzuk, eta mozorrotuta agertu ziren guraso eta haur batzuk.

Astelehenean eta asteartean, berriz, ohiko itzuliak egin zituzten. Astelehenean, Leorlas, Alkerdi eta Larraintan barrena ibili ziren gazteak eskean, eta asteartean, Landibar, Telleria eta herri ingurua zeharkatu zituzten.

Etkez etxe eskean egindako itzulian, herritarren borondatea ere nabarmendu dute gazteek, jendea ongi portatu dela erranez.

Eskolako neska-mutikoez, bertalde, Zugarramurdin egitekoa zuten inauterietako besta martxoaren 4an.



ARGAZKIAK: IONE ETA MARIA

Giro ikaragarrian pasatu dituzte gazteek inauteriak.

NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

11

www.nafarroakotxapelketa.com

FINALAURREKOAK

Martxoak 19 / Leitza

17.30 - Zinema zaharra

Estitxu Arozena

Xabier Terreros

Iñigo Olaetxea

Ander Fuentes "Itturri"

Josu Sanjurjo

Miel Mari Elozegi "Luze"

FINALAURREKOAK

Martxoak 26 / Elizondo

17.30 - Lur Aretoa

Julio Soto

Xabier Silveira

Aimar Karrika

Julen Zelaieta

Iñigo Ibarra

Aritz Saragueta

www.bertsosarrerak.eu

Artolatzailea:

Loguntrailea:

SENPERE

GIZARTEA → ATXILOKETAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Herriko bi hautetsik salaketa aurkeztu dute poliziak izan duen jarreragatik

Jean François Bederede eta Eliane Etxeberria dira

Franck DOLOSOR

Senpere egun eta bihar taldeko bi hautetsik salaketa aurkeztu dute berriki poliziaren kontra, agente batzuek erakutsi dieten bortizkeriagatik. Iparraldeko zombait lagun eta hautetsik bezala, Jean François Bederedek eta Eliane Etxeberriak elkartasuna erakutsi zieten Izpuran bildu ziren Segiko zortzi militanteei. Hegoaldeko zortzi gazte hauen kontrako atxilotze euroagindua aurkeztu zuen Espainiako justiziak eta neurri horren kontra altxatu ziren hautetsiak.

Bederedek bi gazte aterpetu zituen etxean, Senperen, eta poliziak biak arrastatu zituen martxoaren 2an Bederede eta Etxeberriarekin Baionarat joaten zirelarik. Jean François Bederedek TTIPI-TTAPARI erran dioenez, arrastatze «aski bortitza izan zen, kolperik gabe baina poliziak bere armak erakutsi zituen». Gero Baionan prentsaurrekoa eman ondoren Segiko gazteen egoerari buruz, Bederedek eta Etxeberriak herrirako bidea har-

tu zuten eta haiez gain Iparraldeko bertze bi hautetsi eta Endika Perez Segiko gaztea zeuden Bedereden autoan. Basusarri aldean, autoa geldiarazi zuen poliziak Segiko gaztea arrastatze-ko. Lekuko en arabera, hautetsiak eta kazetariak, operazioa biziki bortitza izan zen. «Polizia ikusi genuen segika baidenuen eta pentsatu genuen operazioa lasaiki egiten ahalko zela», dio Bederedek. Alta, goizekoa baino bortitzagoa izan zen bidean berean lurreratuta bota baitzuten atxilotua esku burdinak emateko. Gainerat, Bedereden autoaren atebateko berina hautsi zuten poliziek. Berriz ere armak erakutsi zizkieten inguruetan ziren hautetsiek. Lekuko en arabera, «dena biziki laster gertatu



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Korrika 17 Senperen gaindi

Aurten ere Korrika AEKren aldeko lasterkaldia gure herritik iraganen da eta gainerat bi aldiz: apirilaren 11n eta 12an. Bi mila kilometra baino gehiago egiten dira gau eta egun gelditu gabe apirilaren 7tik 17rat Trebiñutik Donostiaraino. Aurtengo leloa Euskalakari da eta horren inguruan kultur ekitaldi andana egiten da bazterren berotzeko eta beti bezala, gure mintzaira sustatzeko.

PEREZEN ATXILOKETA

«Biziki bortitza izan zen, goizeko atxilotzeak baino bortitzagoa»

Endika PEREZEn atxilotetaren lekukoak

zen eta biziki bortitza izan zen, goizeko atxilotzeak baino bortitzagoa».

Egun osoan iragan ziren gertakariak salatze elkarretaratze bat egin zen arratsean berean Herriko Etxe aitzinean eta 120 bat pertsona bildu ziren.

Atxiloteten lekukoak izan ziren eta poliziaren bortizkeria jasan zuten bortz hautetsien abokatak salaketa aurkeztu zuten poliziaren aurka Baionako prokuradorearen aitzinean martxoaren 10ean. Ikerketa poliziala irekiko da, beraz, gertaera argitzeko eta horren ondotik prokuradoreak deliberatuko du poliziak auzipetzen dituen edo ondoriorik gabe uzten duen afera. Salaketa gerokorik gabe geldituko balitz, instrukzio epaile batengana joaten ahal lirateke hautetsi hauek, hauen artean Bede-

rede eta Etxeberria.

Bertzalde, euskal militanten aurkako euroagindua eskaerak salatze-ko giza kate erraldoia egin zen martxoaren 5ean Baiona eta Angelu artean. Antolatzaileen arabera 1.500 lagunek parte hartu zuten protestan horretan. Azkenik, lezardu hauek idatzi zirelarik Izpuran bildu ziren Segiko zortzi gazteen artean lagun bakarra zegoen aske oraino eta bere aldeko bi asteko baraldia hasi zuten Hendaian Iker Elizalde eta Xabi Hiri-goienek Hendaia eta Beskoitzeko hautetsiek.

Gure Haragia
Nuestra Carne

Iñaki Alzuyet
margoak

Pintura dekoratiboa eta industriala • Fatazadik • Barnealdeak
Dekorazio erakutsiak, belandurak
Lakatsua eta berriztatzeak kabinen • Pladuma
Nari eta eguna arnadorarekin garbitzen da

Ibar-ttipi etxea - Landibar Auzoa - 31711 URDABAZUBI
Tel: 659 862 417 • pinturasalzuyet@yahoo.es

MONTXO OSTATUA

Dantzarineatik
2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • VRDAZYBI

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

OSPAKIZUNAK → IHAUTERIEN ERREPASOA

40 gaztek parte hartu dute aurten ihauterietako eskean

Euskal ihauteri tradizioaletako pertsonaiez mozorrotuta ibili dira

Joanes GARCIA

Aldi honetan ere, ihauteriak behar bezala ospatu dituzte gazteek. Aurten, mozorrotutako egin dituzten indarrak azpimarratzeko ak dira. Izan ere, euskal ihauteri tradizioaletako pertsonaia gehienak

bertan izan dira: kotilungorri, kaskarrotak, momotxorroak, zirtzilak eta nola ez hartza. Eskeak 09:00etan abiatu ziren, gazteak traktore batek zeraman orga batean kantari zirela.

Parte hartu duten 40 gazteek Elbarrun, Ihalar eta Lehenbizkaiko auzoetan ukan duten harrera eskertu nahi luke.

Biharramunean, Zazpiak Bat dantza taldeak, Olhain ikastolak eta Etxola gaztetxeak pla-

za girotu zuten bertaratu zirenen bozkarioarendako. Dantza taldeko dantzariak haien trebezia erakutsi zuten, ikastolako haurrek alai kantatu musikariak laundurik eta bukatzeko, gaztetxeko kideek erre aitzin epai zorrotz bat egin zioten Zanpantzarri.

Ondotik, ikastolako burasoen, 90 pertsonendako bazkari goxoa eskaini zuten plaza erdian.

Bertzalde, ortziral gaue-

an, Sarako Ondareak antolatutako gauldira jende frango hurbildu zen. 50 bat pertsonak Claude Labaten hitzaldiarekin gozatu zuten.

Sarako traila martxoaren 27an

Sara Korrika lasterketa taldea 6. Sarako Trailaren antolaketan ari da buru belarri. Larrungo maldetan iragaiten den korrikaldia martxoaren 27an iraganen da, igandez. 550 partaide baldintza hobereetan lasterka egin dezaten 50 laguntzaile izanen dira lanean.

Urteroko ibilaldia segituko da eta urtero bezala giro ezin hobean bukatuko trikitilari eta gaiteroek animaturik.

Izen emaitak Turismo Bulegoan (0559 542014) edo Nicolasi deituz (0613 429581) egin behar dira. Informazio gehiagorentzat www.sarakorrika.com webgunea. Aldizkariko 41. orrialdean ere xehe-tasun gehiago irakurgai.

BAIGORRI

Nafarroaren Egunerako usain baino 300 langile gehiago behar dira

TTIPI-TTAPA

Ohiturari segituz, eta nafarren arteko lokarriak indartzeko helburuarekin, apirilko azken igandean ospatuko da Nafarroaren Eguna Baigorri, apirilaren 24an. Eta egun horretarako langileak behar direla jakinarazi du antolatzaile taldeak prentsa igorritako ohar batean. Aurten usaian baino 300 langile gehiago beharrezkoak izanen omen dira eta hortaz, laguntza eskatu dute. Laguntzeko prest dagoenak martxoaren 30a baino lehen eman behar du izena (0033)610 404130 telefonora deituta edo nafarroaren.eguna@gmail.com-era mezu bat igorrita. Izen-abizenak eta helbidea utzi behar dira apuntzerakoan.



ARGAZKIAK: JOANES GARCIA

Giro ederrean joan dira ihauteriak aurten ere.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Burriztezu sarrua · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

SOULE
hileta artea
Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

HERRI-ETXEN
EDXNTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE
Tf: 0559542519
Mugan eta Warrapue
SARA



TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

**DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

537 ALEKO IRABAZLEAK

- * GRR-GRR! LIBURUA - TTARTTALO | Margarita TELLETXEA | BERA
- * ELKAR 2 LIBURU
Beste gu | Milagros LOPEZ | ELIZONDO
Kondenatu baten azken eguna | Izaskun ARBURUA | ETXALAR
- * MARTIKO LOTEA | Usoa VICENTE | SUNBILLA
- * ONDDO TA PUNTO KAMISETA | Blanka BIKONDO | IHURITA
- * ARRATE ESTETIKA BONOIA | Jose Antonio SAINZ | BERA
- * ELKAR 3 LIBURU
Ni naizen guztia | Begoña IPARRAGIRRE | ETXALAR
Andere Zikoinak | Mª Josefa ZAPIRAIN | ARANTZA
Ilargi amandrearekin, ikimilikilikik | Ana Mª TELLETXEA | ELIZONDO

elkar

OLATZ ZUGASTI CD-a
Elkar argitaletxea
www.elkar.com

AQUARIUM

2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com

oninart

KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com

Pirri, Porro eta Marimotots

KAMISETA BAT
Pirri, Porro eta Marimotots
www.kabeporreta.com

TTIPI SASKIA



PRODUKTUAK:
URTXINTXA ESKOLA | PUNPALAPLAN CD-ROMa
EREIN ARGIALETXEA | HERIOTZA LA FENICEN
ARGIA | MUNDUKO IPIUNAK

DESKONTUAK

AYLA
argazkigintza fotografia
%10 kameti argazkietan

DATUCELAY
%10 Batena eta smartguduzketan

Kafé Garia
%10 berzetan

edurne
%5 3000 g. gari, alburu eta...

ETXARTE
%10eko deskontua

EZKONTZAK

Stephen Robert Newell eta **Maria Itziar Paternanin**, Irungoa eta Alkaia-gakoa, otsailaren 26an Lesakan.
Jesus M^o Etxepare Ariztegi eta **M^o Arantzazu Aleman Lurnagarai**, Lesakakoak, martxoaren 5ean Lesakan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Maialen Ormaetxea Erro, Lesakakoa, otsailaren 26an.
Rares Alexandru Covaci, Doneztebekoa, otsailaren 24an.
Elaia Marie Bareyre, Sarakoa, otsailaren 21ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Catherine Hillau Pouyet, Sarakoa, otsailaren 2an.
Juan Andres Etxandi Elizetxe, Erratzukoa, otsailaren 27an, 90 urte.
Rufina Albistur Mindegia, Beintza-Labaiengoa, otsailaren 27an, 89 urte.
Jorge Altzu Fagoaga, Iturengoa, otsailaren 28an, 78 urte.
Jesus Agirre Martinez, Elizondokoa, martxoaren 1ean, 74 urte.
Roxari Endara Irazoki, Berakoa, martxoaren 2an, 83 urte.
Pakita Zestau Zabaleta, Leitzakoa, martxoaren 3an, 86 urte.
Eustakia Bazterrika Legarreta, Iturengoa, martxoaren 5ean, 90 urte.
Maritxu Azpiroz Irazusta, Leitzakoa, martxoaren 5ean, 90 urte.
Pedro Jose Maia Irungarai, Irurita-koa, martxoaren 6an, 89 urte.
M^o Rosario Saldias Saldias, Elizondokoa, martxoaren 7an, 43 urte.
Leandro Oskoz Sarratea, Elizondokoa, martxoaren 7an, 70 urte.
Trini Ezkurra Otxandorena, Leitzakoa, martxoaren 6an, 56 urte.



Esteban ZABALETA ZABALETA

Leitzan hil zen, 2011ko urtarrilaren 15ean, 45 urte zituela

Une gogor hauetan gure min hau eramaten lagundu diguzuenei, eta zuen maitasuna eta hurbiltasuna eskaini diguzuen guxtiei eskerrik asko bihotz-bihotzez.

GURE BIHOTZETAN
ERAMANGO ZAITUGU BETI.

AMAIA, JON ANDER, ITXARO, UXUE, GURASOAK,
ANAI-ARREBAK ETA ILOBAK



Juan Bautista URROZ EZKURRA

I. URTEURRENA
Beran hil zen, 2010eko martxoaren 20an, 67 urte zituela

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina biziz garen artean ez zaitugu ahaztuko.

EMAZTEA, SEME-ALABAK, BILOBAK ETA FAMILIA

Bere urteurreneko meza martxoaren 20an eginen da, San Esteban Elizan, 10:00etan.

Asun ANSO ERASUN

Oizen, 2011ko otsailaren 14an

Zorigaitzeko egun batean joan zara mundu honetatik beti irrifarre bat ateratzen zenigun alderen batetik eta laguntzeko prest egoten zinen bestetik min haundi bat eragin duzu joanda gure aldamenetik baina lasai barkatzen zaitugu horregatik.

Familiak ez zaitugu ahaztuko eta ez zara inoiz joango gure bihotzetatik egin ezazu zure eguneroko siesta eta jeikitzeekin egonen gara beriz elkarturik.

Geroarte Asun, muxu haundi bat Zure senar, seme eta senideen partetik.



ARGAZKIA: ZALDUA

Hainbat pilotarik parte hartu dute Malerrekako eskuz binakako bederatzigarren pilota txapelketan.

PILOTA → TXAPELKETAREN IX. EDIZIOA

Onsalo eta Arraztoa nagusi Malerrekako pilota txapelketan

Maila nagusian Esain eta Madariagari irabazi diete

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Erreka Elkarreak bederatzigarren aldiz antolatutako Malerrekako Eskuz Binakako Pilota Txapelketaren finalak martxoaren 5ean jokatu ziren Doneztebeko frontoian. Goiz eta arratsaldez, zazpi kategoriatan aritu ziren pilotariak.

Benjaminen mailan, Oberenako Oskozek eta Cuairanek 18-15 irabazi zieten Ilunpeko Alberdi eta Galarragari.

Alebinetan, Ilunpeko Egiguren eta Alberdi nagusitu ziren, 18-7 irabazi zieten Errekako Zubizarreta eta Salaberriari.

Infantiletan Donibane-ko Laso eta Arandiak irabazi zuten. Taldekide dituzten Bakaikoa eta Medina 12 tantorekin utzi zituzten.

Kadeteen kategorian, Zugarraldekoak nagusitu ziren: Larunbek



ARGAZKIA: ZALDUA

Xabi Arraztoa iruritarra eta Unai Onsalo aresoarra elite mailako txapeldunak, Oinatz Bengoetxea pilotariarekin eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkatearekin.

eta Sarasak 18-15 irabazi zieten Oiarpeko Ugalde eta Imazi.

Jubeniletan Añorgako Barandiaran eta Sanchezek irabazi zuten, 22-20ko markagailuarekin Errekako Maia eta Amurrioko Legarretari nagusitu zitzaizkien.

22 urtez azpikoen mailan tantobakarragatik, Intxurreko Urretabizkaia eta Otegik irabazi zuten; 22-21, Errekako Juanenea eta Zugarraldeko Lukin hartu zituzten mendean.

Maila nagusian edo **senior elite mailan,** azkenik, Aurrera Saiatzaldean ari den Unai Onsalo aresoarra eta Txarutako Xabi Arraztoa iruritarra eskuratu zuten txapela. 22-16 irabazi zieten Esain profesional ohia (Buzur Gain taldean ari da) eta Erreka elkartean ari den Joseba Madariaga aranztarrari.

BIGARREN MAILAKOAK

Txapelketa nagusiarrekin batera, aitzineko asteburuan, Errekako pi-

lotarien arteko buruzburuko txapelketaren finala jokatu ziren Doneztebeko eskolako frontoian.

Benjamin E mailan, Gelbentzuk 18-13 irabazi zion Arregiri. **Benjamin D kategorian,** Aldabe 18-14ko emaitza erekin nagusitu zitzaion Porturi. **Benjamin C mailan,** Telletxeak 18-11 irabazi zion Oiarzabali. **Benjamin B kategorian** final estuan, Saldias 18-17 irabazi zion Mitxeori. **Benjamin A kategorian,** Agirre 18-7 nagusitu zen Zestauren kontra.

Bigarren mailako alebinetan Zelaiek 18-17 irabazi zion Erasuni.

Bigarren mailako infantiletan, Saldias nagusitu zen, 18-7 Arrieta-ri irabazi ondotik.

Infantiletan, Fagoagak 18-14 irabazi zion Salaberriari.

Bigarren mailako kadeteetan Saldias 22-12 irabazi zion Etxe-koloneari eta **kadeteetan,** Elizalde nagusitu zen, 22-13 irabazi zion Telletxeari.

HERRI KIROLAK

Igantzi eta Baztango Basaburua Herri Kirol Jolasetan

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, hilak 20, eginen den lehen jardunaldiarekin ematen zaio hasiera aurtengo Nafarroako Herri Kirol Jolasei. Guztira lau jardunaldi eta finala jokatu dira: lehena Arbizon edo Etxarri-Aranatzen, bigarrena martxoaren 27an Altsasun, hirugarrena apirilaren 3an Berriozarren, laugarrena apirilaren 10ean Arbizon edo Etxarri-Aranatzen eta finala, apirilaren 17an **Berroetan**, eta euria egiten badu, Iruritan. Saioak 11:00etan hasiko dira. Eskualdeko taldeei dagokienez, kimuen mailan **Igantzi**ko Unanu eta Abelu taldeak eta **Baztango Basaburua** ariko dira; eta haur zein kadeteetan, bai konbinatuetan eta bai sokatiran, Baztango Basaburua ariko da.

MENDI LASTERKETA → AURTEN SEIGARREN ALDIA

25 kilometroko Sara Korrika Trail lasterkaldia hilaren 27an egingen da

Martxoaren 21era arte ematen ahal da izena

TTIPI-TTAPA | SARA

Aurten seigarren urtez, martxoko azken igandean egingen da Sara Korrika Trail lasterkaldia, hilaren 27an. Urte tik urtera indartzen doan proba da eta horren erakusle da parte hartzaile kopurua: 2006an 200 ziren, 2008an 350 eta 2009an eta 2010ean 500etik goiti.

Larun mendiko mazelatik iraganen den itzuliak 25 kilometro izanen ditu, 1.443 metroko desnibel positiboa



ARGAZKIAK: WWW.SARAKORRIKA.COM

Manttale taldeko Iñaki Pikabea eta Oihana Perez beratarrak iazko Sarako lasterkaldian.

eta 1.442 metroko desnibel negatiboa. Punturik garaiena Ateka leun da, 710 metro inguruan dagoena eta ibilbidearen 7,3. kilometroan.

Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, eta martxoaren 21ean bukatuko da. www.sarakorrika.com web orrian egin daite-

ke, edo datuak eta mediku azterketa Turismo Bulegora posta arrunt ez bidalita (Herriko Plaza, 64310 Sara). Informazio gehiago aipatu

webgunean edo (0033) 559 542014 telefonoan.

Lasterkaldiaren egunean, 07:00etan hasiko dira kirolariak Sarako plazan biltzen, eta 09:00etan emanen zaio hasiera probari. Olhaingo lepotik bi orren eta erdi baino lehenagotik igaro beharko dute, eta 11:00 aldera hasiko dira lehenbizikoak helmugaratzen. 13:00etan sari banaketa egingen da eta ondotik, talo-jatea.

ERREKORRAK

Gizonetan orain arteko marka, lasterkaldia lau aldiz irabazi duen Fernando Etxegarai beratarrakegina da (01:58:19) eta nesketan Oihana Kortazarrek (02:24:47).

AIZKORA → BINAKAKO TXAPELKETA

Mikel Zabaletak eta Eneko Otañok irabazi dute Gazte Mailako Txapela

Eneko Saralegiren orde z, Eloy Kortxero aritu da finalean

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Ez urrezko mailan, eta ez zilarrezko mailan ere, ez da eskualdeko aizkolari iriz izan Binakako Aizkolari Txapelketaren finalean. Bai, ordea, gazte en mailan. Eta txapela ere lortu dute gainera.

Mikel Zabaleta leitzarra eta Eneko Otañok

(Beizama, Gipuzkoa) irabazi zuten otsailaren 27an Azepeitian jokatu zen Gazte Mailako Binakako Aizkora Txapelketako finala. Minutu eta 26 segundoko aldea atera zieten Eloy Kortxerori eta Iker Vicenteri. Berez, Eneko Saralegi leitzarra ari tze koa zen finalean, baina ebakuntza egin berria zuelako, Kortxerok jokatzen zuen bere orde z.

Proba guztietan gailendu ziren Zabaleta eta Otaño, eta guztira 11 minutu eta 15 segundo behar izan zituzten lanak bukatzeko; Kortxerok eta



ARGAZKIA: GERARDO BENGOA

Gazte Mailako txapeldunak, Zabaleta leitzarra eta Eneko Otaño beizamarra.

Vicente II.ak 12:41. Urrezko Mailan Azur-

mendi eta Atutxa nagusi ziren eta Zilarrezko

Mailan, berriz, Rodriguez eta Kañamares bikotea.

martxoak 17-30

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ospakizunak



BERA | 2011.03.20

Eskualdeko Txistulari Eguna aurtengoan Beran egingen da

Eskualdeko txistulariek Beran izanen dute hitzordua igandean. Dianak, kalejirak, organoarenekin batera jotako piezak eta bazkariak osatuko dute goiza.

Bertsoak



LEITZA | 2011.03.19

Nafarroako bertso txapelketako 2. finalaurrekoa

Estitxu Arozena, Xabier Terreros, Iñigo Olaetxea, Ander Fuentes *Itturri*, Josu Sanjurjo eta Miel Mari Elozegi *Luze* ariko dira 17:30etik aurrera zineman.

Bertsoak



ELIZONDO | 2011.03.26

Nafarroako bertso txapelketako 3. finalaurrekoa

Julio Soto, Xabier Silveira, Aimar Karrika, Julen Zelaieta, Iñigo Ibarra eta Aritz Saragueta ariko dira 17:30etik aitzinera Lur dantzalekuan.

apirilaren 2an eta 9an emozioak margoketa eta musikaren bitartez adierazteko 6-12 urte arteko umeendako margoketa tailerra emanen du Diana Iniestak, Otsondo Barride Elkarteak antolatuta. Izen ematea: 659 948926-948 453478.

ELIZONDO

Emakumeen Eguneko tailerrak

Martxoaren 19an sexualitate tailerra Arizkunenean (18:00).
Martxoaren 25ean xaboa egiteko tailerra Arizkunenean (17:00-20:00). Izen emateko: 948 452372.

LEITZA

Emakumeen Eguneko tailerra

Martxoaren 26an autodefentsa feminista tailerra.

Lehiaketak

BAZTAN

Baztandarren Biltzarreko kartela

Apirilaren 9ra arte aurkezten ahal dira Baztandarren Biltzarra iragartzeko kartel lehiaketarako lanak.

Solasaldiak

ELIZONDO

Emakumeen Eguna

Martxoaren 17an *Arte, feminismo y acción* hitzaldia eskainiko da 19:30ean Gaztetxean.

Martxoaren 18an *Emakumea eta kartzela* hitzaldia Arantxa Santesteban preso politikoko ohiak 20:30ean Gaztetxean.

Antzerkiak

IRURITA

Korrika Kulturala

Martxoaren 27an *Euskarazetamol* ko-

Kontzertuak

ELIZONDO

Ken 7 taldea Lur dantzalekuan

Martxoaren 19n kontzertua eskainiko du Ken 7 taldeak Lur dantzalekuan, 00:30etik aitzinera.

Trikidantz talde berria Lur dantzalekuan

Martxoaren 26n kontzertua eskainiko du Trikidantz talde berriak Lur dantzalekuan, 01:00etatik aitzinera. Sarrera: 9 euro.

LEITZA

Ratzinger eta Sermond's Gaztetxean

Martxoaren 18an kontzertua eskainiko dute Gaztetxean Ratzinger eta Sermond's taldeek 22:30ean.

Erakusketak

ELIZONDO

Rwandari buruzko argazki erakusketa

Martxoaren 7tik 27ra *Rwanda, Nafarroako kooperazioaren jato - rria* argazki erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean. Egilea: Enrique Pimoulier.

BAZTAN

Herriz herri Lotu zaitez birziklapenari

Martxoaren 15etik 19ra *Lotu zaitez birziklapenari* erakusketa Arizkunenea Kultur Etxearen gibeledan izanen da.

Martxoaren 23tik 26ra Almandozen.

Bertsoak

LEITZA

Nafarroako txapelketako bigarren finalaurrekoa

Martxoaren 19an zi-

neman, 17:30ean. Estitxu Arozena, Xabier Terreros, Iñigo Olaetxea, Ander Fuentes *Itturri*, Josu Sanjurjo, Migel Mari Elozegi *Luze*.

ELIZONDO

Nafarroako txapelketako azken finalaurrekoa

Martxoaren 26an Lur dantzalekuan, 17:30ean. Julio Soto, Xabier Silveira, Aimar Karrika, Julen Zelaieta, Iñigo Ibarra eta Aritz Saragueta.

Errezitaldiak

DONEZTEBE

Dizdiraren Olerki errezitaldia

Martxoaren 18an Anasaps-Dizdira elkarrekin hirugarren urtez antolatutako olerki errezitaldia egingen da Musika Eskolan 19:00etan.

Ikastaroak

AMAIUR

Haurrentzako margo tailerra

Martxoaren 26an,

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Ken 7 taldearen azken diska Lur dantzalekuan

Ken 7 talde arrakasta -tsuak *Ortze mugak begietan* bere azken diska aurkeztuko du martxoaren 19an Lur dantzalekuan. Sarrerak aitzinetik salgai daude 12 eurotan Elizondoko Antxitonea eta Txokoton, Lesakako Atxaspin eta Iruñeko El Infierniton. Egun berean, 15 eurotan salduko dira. Talde bizkaitararen rock melodikoa aditze-ko aukera ederra.



media antezzlana Iru-
ritako Gizarte Bilgune-
an, 17:00etan.

Ospakizunak

BERA

**Hip-Hop reggae besta
Kaxerna Gaztetxean**

Martxoaren 19an

17:00etan hasita gra-
ffitiak, merendu afaria,
kontzertuak, break
dance eta gaupasa.

**Eskualdeko txistulari
eguna**

Martxoaren 20an

eskualdeko txistulari
eguna. Igande goize-
ko ekitaldiak, bazka-
riarekin borobilduko
dira.

Mendi irteerak

BAZTAN

**Baztango Mendigoiza-
leen ateraldia**

Martxoaren 20an

Baigorri-Olandoi-Arro-
lako harria-Munoa-
Baigorri ibilaldia.

(08:00etan abiatzeko).

Martxoaren 27an Ur-
lei-Iruin-Aritzakun-Mi-
netako Zokua-Arrose-
nea-Kantenea-Wasin-
tong-Urlei ibilbidea.

(08:00etan abiatzeko).

ZUGARRAMURDI

**Atxuria mendi
taldearen irteera**

Martxoaren 27an Le-
sakara ateraldia anto-
latu du Atxuria mendi
taldeak.

Zinema

ELIZONDO

**Emakumeen Eguneko
zinema**

Martxoaren 20an

May west filma ikusgai
Gaztetxean (18:00).
Ondotik txokolatada.

Gertaera guztiak
ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Sakoneta

XABIER MENDIGUREN

Elkar, 2011

Ertzain gotorki armatuak, ekologista sutsu soli-
darioak, kazetari zinikoak edo jakingoseak...
Denak doaz Sasiondora, han, diotenez, baseritar
txoro edo terrorista fanatiko batek tiroka egin bai-
tie aurre agintariei, AHTk desjabeturiko baserria,
Sakoneta, husteraz zetozenean. 24 ordu eskasean,
hainbat pertsonaia gurutzatuko dira, nor bere amets
eta esperientziekin, eta guztien berri emango digu
nobela labur eta koral honek, 48 atal laburren bi-
dez, errealismotik esperpentora egiten duen umore
maltzurrez eta biziaren zipriztinak sentiarazten
dituen hizkeraz. «Esperpentoaz eta karikatuz» jo-
katu duela azaldu zuen idazleak liburuaren aurre-
kezpenean. Banaz bertze hiru orrialdeko luzera du-
ten 48 ataletan banatu du nobela, eta paperean argi-
taratu aitzinetik, egunero atal bat irakurtzeko au-
kera izan da www.sustatu.com webgunean. «Zati
laburrak dira, eta egunero bat irakurtzea esperi-
mentu bat izan zitekeen. XIX. mendean nobela guzti-
ak lehenago atalka publikatzen ziren prentsan».

Musika



Itxaropena

PATXI SAIZ

Elkar, 2011

Patxi Saizek euskal kantu tradizionalen eta kan-
tautoreen tradizioan oinarritzen den hamaika
kantuz osatutako *Itxaropena* disko berria dakarkigu.
Izan ere, jorratzen diren gai guztietan itxarope-
na baita kantuen xede nagusia. Auto-ekoizpena
den disko hau, Musikorta eta Noizbehinka estu-
dioetan grabatua etanahastua izan da 2010. urte-
an zehar. Patxi Saizen ahotsa eta gitarra dira oina-
rri kantu guztietan, ahotsaren esentzia izanik ar-
datz nagusia; hain zuzen ere, bi ahotsetan diren
abestietan nabariagoada esentzia hori bere gor-
dintasunean. Kantautore izaera oinarri izanik, dis-
koa instrumentazio ezberdinez jantzita azaltzen zai-
gu. Kantuen hitz gehientsuenak Patxi Saizenak ba-
dira ere, beste autore batzuen hitzakere erabili di-
tu, Ernest Arranbide, Luis M. Lauzirika *Txili*, *Basa-
rri* eta Telesforo Monzonenak. Bere kantuetan her-
rimina, espetxea, amodioa, barne hausnarketa...
dira jorratzen diren gaiak.

Internet



Euskal umeen
z(d)ibertxokoa

WWW.TXIKI.NET

Umeak, euskara eta Internet. Hiru kontzeptu ho-
riek biltzen sortzen den egitasmoa da txiki-
net, ageriko hutsune bat betetzeko garatzeko ari
den proiektua. Txikinet euskal umeen zibertxokoa-
ren helburu orokorra, euskal haurrei zuzendutako
espazioa lantzea da. Horregatik, euskal umeon
z(d)ibertxokoa bezala bataiatu dute *txiki.net*. Sar-
rerrako orrian, Ipuinak, Jokuak, Kantak edo Guneak
(bertzelako webgune interesgarriekin lotura egi-
ten du) Ataletara sartzen ahal da, baita Euskal Her-
rikoweb-kamaretara lotura egin ere. Ipuinen tar-
tean, webgunean proposatutakoaz gain, idazle edo
ikasleek bidalitakoak ere ageri dira, eta norberak
bera bidaltzeko aukera ere eskaintzen da. Ipui-
nak bezalaxe, marrazkiak, txistek, igarkizunak
edo iritziak biltzen dira. Hainbat jokotan jolasteko
aukera edo euskal kantuak aditzeko modua ere
bada.

Nire aukera



Fran EZKURRA

Doneztebeko Titi ostatukoak

**«Alabak handitzen
direnean, Txina edo
Japonia ezagutu
nahi nituzke»**

Ostatuak uzten dion
denbora familiari
ematea gustatzen zaio
Fran Ezkurrari. Beretz-
ko denbora duenean, lo
gutti egiten duenez
«siesta tiki bat» egitea
gustatzen zaio. Bere ga-
raian eskubaloian aritu
bazen ere, gaur egun
«kiroliek deus ere ez» ez
duela egiten onartu di-
gu. Aisialdian zinemara
gustatzen zaio «alaba-
rekin 3Dko film bat iku-
si berri dut» edo futbol
partidaren bat ikustea.
«Lehen Osasunako
bazkide nintzen, baina
oraingo ostatuko ordu-
tegiaren ezin dut parti-
darik ikusi». Normalki
oporrak neguan hartzen
ditu eta emaztea brasil-
darra duenez, harat joa-
ten dira pare bat astez.
«Uztailean aste bat edo
hondartzara joateko
ere» aprobetxatzen du-
gu. Hain zuzen, «lehen-
go» bizitzaz bidaiatzea
da gehien falta zaiona.
«Gehien gustatu zaidana
Iguazúko urjauzia
izan da, baina New York
ere arras polita da, Ita-
lia... Txina edo Japonia
ezagutzea gustatuko
litzaidake, horixe dut bu-
ruan. Beharbada alabak
handitzen direnean».

ETXEBIZITZAK
salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ORONOZ-MUGAIRI. 100 m²ko etxebizitza salgai. Mobleztatua. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, jaki-gordailua eta kanpora ematen duen trastelekua, urbanizazio pribatua, lorategi haundia, aparkalekuak guztientzako eremuan. 228.000 euro. ☎620 679145.

ETXALAR. Lizaietako parajea zaharberritzeko borda salgai, lur eremuarekin. ☎661 121540.

ANZABAL
INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI
- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

SUNBILLA. Karrika Nagusian pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trasteleku handia. ☎680 475419.

BERA. Pisua salgai. 84 m² eta trastelekua. 3 logela. Oso toki lasaian. Leihoak eta sukaldea aldatu berriak. Bista onak eta eguzkitsua. ☎687 950371.

DONEZTEBE. Pisua salgai. Sukaldea, komuna, 2 logela, egongela handia eta despentsa. 15 m²ko trastelekua. 138.000 euro. ☎630 160353.

ELGORRIAGA. Pisua salgai. 3 logela eta berogailuarekin. ☎630 822018.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
erosi

BAZTAN edo BERTIZARANAN baserri bat erosi nahi dugu, han bizitzeko. ☎686 935383.

ETXEBIZITZAK
errentan eman

SUNBILLA. Herri erdian, Iturburu ostatuaren ondoan, etxea errentan emateko. Mobleztatua. Prezio onean. ☎679 828780.

LESAKA. Herri erdian apartamentu tikiat errentan. ☎675 714360.

BERA. Kanttonberrin pisua errentan. 3 logela eta igogailua. ☎688 609905.

ETXEBIZITZAK
konpartitu

BERA. Neska bat behar da pisua konpartitzeko. 2 logela, egongela, su-

kaldea eta bainugela. Ez da garestia. ☎661 013168.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

DONEZTEBE. Belarra jate-txete-erregia errentan emateko. ☎948 451797.

LUR EREMUAK
salgai

ELIZONDOtik kilometro batera 8.000 m²ko lursail urbanizatua salgai. Bista zoragarriak eta prezio ekonomikoa. ☎659 174688/ 637 794318.

BERA. Agerra auzoan 1.400 m²ko lur eraikigarria salgai. ☎948 631206.

LANA
eskaintzak

BERA. Ibardingo arropadendan lan egiteko frantsesa dakien norbait be-

har da. ☎676 948463.

BERA. Ibardinen, eguneror lan egiteko sukalderi bat eta asteburu eta udan dendan aritzeko langilea behar dira. ☎948 630709.

BERA. Artisautzako makina batean lanean aritzeko mutil bat behar da. Eskuz lan egiten moldatzea eta frantsesez jakitea garrantzitsuak. ☎948 631406 / 673 012339.

LANA
eskariak

Neska gazte bat asteburuetan haurrak zaintzen edota ostuan zerbitzari ariko litzateke. ☎671 437303.

Emakume bat arratsaldetan edozein lanetan ariko litzateke. ☎662 410910.

Neska gazte euskaldu-

na edozein lanetan aritzeko prest dago: umeak zaintzeko, dendan, ostalaritzan... Ostalaritzan esperientzia duena. ☎676 273141.

Emakume euskaldun bat adineko jendea zaintzen ariko litzateke. ☎662 607571.

ZERBITZUAK
zurginak

ARANTZA
Zurgindegia.....
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu erreklamazioak konpromisarik gabe
Jose Manuel Cruzado
Tel. 948 631 010 - 647 010 144
Gentzen - ARANTZA

ZERBITZUAK
bertzelakoak

BORDA
ISOLAMENDUAK
Termikoak | Akustikoak
Suen kontrolak
Pedar lanak: Erberritzeak
Erekitasak - Industrienak
Dekorazioak - Sobel modularrak
www.termoizol.com

MOTORRA
salerosketak

Opel Astra salgai. NAAK. ☎649 669252 (deitu arratsaldean).

Nissan Terrano II 2.7 TDI Sport salgai, 3 atekoa. 2000. urtekoa eta 156.000 kilometro. Egogorra onean. ☎655 743991.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(otsailaren 25etik martxoaren 4ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 49,00 € (=)

Zerri gizena
1,260 € kiloa. (+0,017)

Zerramak:
0,430€ Kg/bizirik. (+0,017)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10 (=)

1.koa 3,79 (=)

2.koa 3,46 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,18 (=)

1.koa 3,89 (=)

2.koa 3,59 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)

idixkoak 200,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 110,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,76/2,86

Zaldi-behorrak: 1,66/1,86

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,60/6,30

8-10 kilokoak: 4,70/5,00

Lx 50 vespa berria salgai, estreinatu gabea. Gorrria eta 0 kilometro. Zozketa batean tokatua. Berrriak 2.100 euro balio ditu eta hau 1.500 eurotan dago salgai. ☎ 679 012225.



Volkswagen Bora Trend 1.9 Tdi 110cv salgai.10 urtekoa, gris metalizatua. ☎667 796439.



Nissan patrol GR slx-94 salgai, egoera onean. Enbrage eta kulata berriak. Kristal beltzak, bola, llanta desplazatuak 15 cm, mendiko gurpilak. Dena homologatua. ☎ 626 118214.



Nissan Terrano II 2.7 TDI Sport salgai, 3 atekoa. 2000. urtekoa eta 156.000 kilometro. Egoera onean. ☎655 743991.

Land Rover Defender TD5 salgai, 125.000 kilometroekin. Bonba gasolioa eta filtroak berriki aldatuak. ☎690 388134 (Xabier).



MOTORRA
tailerrak



MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

SANTESTEBAN
Tailerrak
DONEZTEBE • 948 450 282



ANIMALIAK
salgai

Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. Aita eta ama finak lanean. ☎661 767027.

ARESO. Aharia salgai. ☎948 510314.

Monturako bi urteko zaldi pintoa salgai. ☎628 538652.

ANIMALIAK
opari

Zakurkume arra oparitzeko, Ispaniel eta artzain zakurraren nahasketa. 2 hilabete. ☎679 892622.



DENETARIK
salerosketak

Antigualeko altzariak salgai. ☎948 637930.

LEITZA. Bulegoko mahai eta apalak edo armarioa behar ditut etxetik lana egiteko. Dohainik edo merke-merke hartuko nituzke. ☎639 869312.

Karro denda osoa salgai. Oso egoera onean. Paperak badauzkat. 900 euro. ☎656 752799.

Beheko sua salgai. Gora eta alde baterra irekitzen den primatiko kristala. 65 cm luzerako egu-

IGANTZIKO UDALA
Xehetasun azterlana. Hasierako onespena

Igantziako Udalak, 2011ko otsailaren 23an egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea 1.polygonoko 493. lur zatiaren xehetasun azterlana, Salvador Lizardi Tranche jaunak sustatua.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hogeigunegun, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak aurkez daitezten. Jendaurreko aldi inork ez badu alegaziorik aurkezten, dokumentua behin betiko onetsiko da, bidezko bada.

Arantzan, 2011ko otsailaren 28an
Alkatea, Agustin SAINZ IRIGOYEN

rrak. 18 KW-ko potentzia. 900 euro. ☎ 669 427571.



gai. Flight case fundarekin biak. ☎685 633 195.



DENETARIK
bertzelakoak

Dominikar Errepublika, Ekuatore Ginea eta Guinea Bissauko umeak udan etxean hartzeko eta umeak apadrinatzeko familiak behar dira. ☎634 401978.

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu

Egin zaitez **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Baztan, Urdazubi eta Malerreka 31€
- Amerika eta Australia 123€
- Ipar Euskal Herria 55€
- Leitza 15€

(0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



OIHAN ETXEPARE ODRIOZOLA lesakarrak urtea bete du martxoaren 15ean. Zorionak! Ongi pasa eta opari asko jaso pottoko. Muxu asko, attatto eta amatxo.




Lakuntzako **LIDE SAN SEBASTIAN ARRAIZAK** 4 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak eta muxu pila familiaren partetik. Prestatuko duzu bizkotxo on-ona, ez?



Gazteluko **MIKEL TELLETXEAK** 4 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak eta lau muxu pottolo Joseba eta familia guziaren partetik.



Zorionak Bera-ko **JABIERRI**, martxoaren 12an zenbat urte bete dituzu? Ongi pasa eguna eta kontuz pastelarekin. Berako familia.



IRENE ZELAIETA IRIARTEK martxoaren 6an urteak bete ditu. Zorionak etxekoan partetik.



BEÑAT YANCI igantziarrak martxoaren 11n 10 urte bete ditu. Bere Igantzi eta Etxalarko familia guziaren partetik mila zorion eta muxu haundi bat bidaltzen diogu. Zorionak maitia, munduko mutikorik politena zara!



Leitzako **EGOI BIDART ZABALETAK** 2 urte bete ditu martxoaren 16an. Zorionak pottolo eta muxu asko etxekoan partetik.



Martxoaren 19an Etxalarko **JOSEBA** eta **JULENEK**, osaba-ilorak, urteak beteko dituzte. Zorionak familia guziaren partetik, ongi pasa zuen eguna!



UNAI OLAETXEA ETXEBERRIA lesakarrak urtea beteko du martxoaren 30ean. Segi beti bezain bihurri eta irrifartsu. Zorionak familia eta bereziki Iban eta Eiderren partetik.



Zubietako **JULEN SANTESEBAN BENDOIROK** 9 urte bete ditu martxoaren 12an. Zorionak familia guziaren partetik eta 9 muxu pottolo Karmele, Endika, Janire, June eta Zairaren partetik. Segi orain bezain alaia izaten!



MAIALEN ETXABE OLHAGARAYK 7 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak familia guziaren partetik.



Zubietako **MIKEL SANTESEBAN GOIZUETAK** 5 urte beteko ditu martxoaren 18an. Zorionak familia guziaren partetik.



ENERITZ SALABERRIA NARBARTE aranoarrak 6 urte beteko ditu martxoaren 22an. Zorionak etxeko danon partetik. *Alaban zorionak / ditugu hemenbex / hilla hontan hanxuxen / orain dala sei urte / Eneritz jaio zen / zentzu alde guztitik / ari da pixkortzen / soña, beso, zankuak / erabat sendotzen / primabera bezela / urtero berritzen.*



MAIALEN, BITTOR eta **IONEK** berriki urteak bete dituzte. Zorionak maite zaituztegunen partetik, eta segi orain bezain pottoloak.




Michiganen bizin den **MADDALEN KLOP FERNANDEZ** lesakarrak 2 urte beteko ditu martxoaren 21ean. Zorionak amatxi-atatxi eta osaba-izebaren partetik. Muxuuuuuuuuuu



Erratzuko **IKER ITURBURUAK** eta **ENAITZ BIKONDOK** 7 eta 2 urte beteko dituzte martxoaren 11n eta 18an. Zorionak familien partetik eta berexiki Haritz eta Naroaren partetik. Prestatu merendola goxo bat.



IRADIK martxoaren 5ean 4 urte bete ditu eta **JONEK** martxoaren 18an 2 urte eginen ditu. Zorionak attatto eta amatoren partetik.



Sunbillako **KOLDO HERRERA URROZEK** martxoaren 25ean 8 urte beteko ditu. Aunitz urtez Klemente, Maider, Iraide eta Garaine lagunen partetik. Ongi pasa eguna eta zortzi mila muxu.

TTIPI-TTAPAk ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskerrikatu **DOKUMENTU-POLTSA** bat izanen duzu ageri

proiektu zuzenakia **15.996**

1000 zuzen TTPI-TTAPA proiektu zuzenakia izanen duzu ageri. Dokumentu-poltsa bat izanen duzu ageri. 1000 zuzen TTPI-TTAPA proiektu zuzenakia izanen duzu ageri.

t tipi-ttapa

EZKONTZA GONBIDAPENAK

100 gonbidapen + 100 sobre
Zuk nahi dituzun bezala PERTSONALIZATUAK



KENZAZPI MARTTOK 19 LARUNBATA
00:30 12€ Aurretik 15€ Bertan

NAFARROAKO BERTSOLARITXAPELKETA MARTTOK 26 LARUNBATA
FINALAURREKOA
18:00

TRIKIDANTZ MARTTOK 26 LARUNBATA
01:00 9€

ABIBADISKOJAIA ABRILAK 2 LARUNBATA
01:00 9€

MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...
OSTIAL, LANBATA ETA JARDUGUNEKO BEZPERETAN IRERKIA
ERRESENBAX • TEL. 948501883

6 URTE

Lur
WWW.LURELIZINDO.COM

garagardalegia

BEGIRALEENTZAKO IKASTAROA

Egunak: apirilak 2, 9 eta 16
Ordutegia: 9:30-14:00 (ordu erdiko atsedenaldia)
Lekua: Beralandeta (Bera)

Izen ematea:

- Martxoaren 21etik 31ra
- Tel: 948634125 (goizez)

Oharak:

- Matrikula: 25€
- Bukarera parte hartzaileek ziurtagiria jasoko dute. Ikastaroan emandako ordu kopuruaren arabera.

ANTOLATZAILEA

 **Bortoloko Euzko Markomunitatea**

EGUNETIK EGUNERA ZUGANDIK HURBILAGO

BULEGO BERRI BATEN IREKITZEA OSPATU NAHI DUGU ZUREKIN

Zure
oporrak
antolatzeko
aukerarik
onena




Bulego berri bat zugandik hurbilago

**Eztegara, 22 behea
31780 BERA. Nafarroa
Tel. 948.631.388**

e-Posta: bera.1266@viajesiberia.com

**Zatoz eta eraman opari mahai
gaineko erloju eder bat***



* Bulego berrien sustapenerako eskaintza 2011, osotara 4.000 aleko stocka duena. Bulego ireki berri bakoitzeko stocka 50 alekoa da.

044 - 001 - 1414

VIAJES & IBERIA